



ttipi-ttapa



OIHANGINTZA gehigarria / 29

MUNDUKO SOKATIRA TXAPELKETARI BEGIRA

Otsailaren 20tik 23ra Irlandan jokatu den munduko sokatira txapelketan parte hartuko dute Lesakako Beti Gazte taldeko neskek eta mutilek. / 49



Istripu kopuruak goiti N-121-An

2010az geroztik 32 lagun hil dira N-121-A errepidean. Azarotik honat eskualdeko bertz lagunek galdu dute bizia auto-istripuz. / 10

**Otsailaren 27tik
martxoaren 12ra
Errigoraren kanpaina
abian / 28**

**Bardoak bertso
ekimenaren baitan
saioa otsailaren
29an Anizen / 35**

SINADURAK



HARITZ
BEREAU
MUTUBERRIA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



AMAIA
TELLETXEA
LARRITXEA / 4



JOANES
ILLARREGI
MARZOL / 4



ZOKKETA / 60

BERA

LESAKA

Agenda

2020

OTSAILA

www.berakoagenda.eus

www.lesaka.eus

LESAKAKO UDALA

20

ORTZEGUNA

INAUTERIAK ORTZEGUN GIZENA

Goizean zehar zingar-arraultze.

15:45 Haurren inude eta artzaiak - Karrozak.

Suhiltzaileen Parketik Etegarara pilotalekura.

(* Oharra Eguraldi txarra eginez gero, Etegarara pilotalekura 16:00etan. Ondotik, Haurrentzako berbera 16:30ean Etegarara pilotalekura: Parranda Tutiplen.

BERA

23

IGANDEA

INAUTERIAK ZAKO ZAHAR ETA MAIRUAK

17:00 Zako-Zahar ttikien kalejira udal pilotalekutik Lesaka Trikitixa Taldeak lagunduta.

18:00 Dantzaldia Plaza Zaharrean.

19:00 Zako-Zaharrak udal pilotalekutik abiatuko dira.

Goitarrak goizean baserri baserri eta arratsaldean herrian.

LESAKA

28

ORTZIRALEA

SOLASALDIA

Zazpiak Bat: Euskal Herriko armariaren historia (Andoni Esparza)

19:00 Beralandetan.

BERA

20

ORTZEGUNA

INAUTERIAK ARRAULTZE ARRAULTZE EGUNA

LESAKA

21

ORTZIRALEA

INAUTERIAK HAURRENTZAKO TALEERRAK ETA TXOKOLATADA

LESAKA

22

LARUNBATA

EMANALDIA

Beti Gazte - Dantza lerro taldearen emanaldia

Non Plaza Zaharrean.

LESAKA

24

ASTELEHENA

INAUTERIAK INAUTERITAKO ASTELEHENA

Goizean zehar zingar-arraultze.

Egunean zehar orgak herrian barna.

BERA

29

LARUNBATA

DANTZA

Helduentzako dantza garaikidea (Ana Irazusta)

Inprobisazioa eta koreografia landuko dira

Noiz Goizez. Prezioa Doan.

Argibide gehiago adurlaranja@hotmail.com

BERA

23

IGANDEA

EKITALDIA

INUDEAK eta ARTZAIK

10:00etatik aitzinera goiz osoan herrian barna Etegarara pilotalekutik hasita.

18:00 Etegarara pilotalekutik Altzateko karrikara.

BERA

24

ASTELEHENA

MOZORROAK ETA ORGAK

Eguerdi aldean orgak eta mozorroak herrian zehar

18:00 Dantzaldia Plaza Zaharrean.

24 astelehena eta 25 asteartean, Fraindarrak baserri baserri eta herrian zehar ibiliko dira.

LESAKA

1

IGANDEA

ZINEMA

"Ernest eta Celestine"

16:30 Harriondoan.

Antolatzailea Eskola eta ikastolako guraso elkatea

LESAKA

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIESek **Nafarroa Garaiko mendialdean** hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

ttipi-ttapa

32.000 irakurle

Diario de Noticias

12.000 irakurle

Diario de Navarra

10.000 irakurle

Bertze batzuk

7.000 irakurle

Gara

5.000 irakurle

Berria

3.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA

♀

%54,6

EMAKUMEAK

♂

%45,4

GIZONAK

ADINAREN ARABERA

Adina (urte)	Irakurle %
14-19 urte	4,3
20-24 urte	3
25-34 urte	11,7
35-44 urte	25
45-54 urte	14,5
55-64 urte	18,2
+64 urte	23,3

IKASKETA MAILAREN ARABERA

Maila	Irakurle %
Oinarriko ikasketak	12,3
Oinarrizko batxilergoa	11,8
Goi mailako batxilergoa	35,6
Unibertsitatea	40,4

DATU ITURRIA: CIES, 2019ko metatuak

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

HARITZ BEREAU MUTUBERRIA

Manipulazioa nonahi

Badirudi teknologian berrikuntzak eman eta informazioa eskuratzeko ateak ireki ahala gizarteak aukera berriak izanen lituzkeela bertsio desberdinak zalantzan jartzeko. Teknologiararen garapenak, ordea, alde positiboez gain, alde negatibo nabarmenak ekarri ditu, boteredunentzat ezinbertzeko tresna bilakatu. Gaur egungo egoerari erreparatuz gero, komunikabideek gizarte kontrolatzeko eta manipulatzeko duten ahalmena ikaragarria dela erran dezakegu. Zoritxarrez, komunikabide zehatz batzuen manipulazioaz soilik konturatu ohi gara, hala nola, Espainiar estatuko eskuin muturreko komunikabideez, horrela Euskal Herriko komunikabideak manipulatzailen lista horretatik aldentuz. Baina azken hilabeteetan, erraterako, euskal telebista publikoa den EITBk, EAJren gobernuaren mesedeetan, greba orokorra desitxuratzeko ahalegin ederra egin du, teleberrietan greba orokorrari garrantzia kenduz eta grebaren arrazoiak ezkutatu. Konturatzen al gara ustez informatzen gaituzten komunikabideen atzean dauden benetako interes eta nahiez?

«KOMUNIKABIDEEK GIZARTEA MANIPULATZEKO AHALMEN IKAGARRIA DUTE»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Munduko guda-soka Irlandan

Pilota bezalaxe guretzat daukagu, baina mundu osoan hedatua dago sokatira. 1900tik 1920ra kirol olinpikoa ere izan zen, pentsa! *Tug of war* (guda-soka) deitzen diote ingelesez; *tiro alla fune* italiaraz; *tsunahiki* japonieraz edo *juldarigi* korearrez... Irlandan lehiatzekoak dira egunotan hangoak eta hemengoak, goma gainekoan. Ea dominak guretzat diren!

NABARMENTZEKOAK



NEREA
SORONDO
AIZKOLARIA



PAULA
SANZBERRO
EGURALDI-EMAKUMEA

Martxoaren 7an jokatuko den Urrezko Aizkolarien Txapelketako finalean ariko da beratarrak. Lerro hauek idazterakoan erabaki gabea zen Maika Ariztegi eta Itxaso Onsalo izanen den finalean.

1976an Benito aitak hasitako bidearekin segitzen du gaur egun Paula Sanzberro sunbildarrak. Eguneko tenperatura altuena, baxuena, momentukoa, hezetasuna eta prezipitazioa neurtzen ditu.

ATZERA BEGIRA



2010-02-18 · TTIPI-TTAPA · 512 zk.

Sunbillara sartzeko bidegurutzea hizpide

N-121-A errepideari soluzioa emateko eskaera aspaldikoa den seinale da duela hamar urte TTIPI-TTAPA aldizkariak Pako Errandona orduko Sunbillako alkateari egindako elkarrizketa. N-121-Atik Sunbillara sartzeko bidegurutzeari buruz aritu zen: «Ez dakit zenbat ordaindu beharko dugun, sarbidea egin denetik borts hildako izan baitira Doneztebe aldetik herrira sartzeko bidegurutze horretan, eta eskapada latzak ere gertatu dira eta gertatzen dira». Udalak gaineko edo azpiko pasabide bat eskatu zuen baina Nafarroako Gobernuak ez zuen begi onez ikusi. Protesta gisa mobilizazioak ere iragarri zituzten: «Gobernuak ez badigu deus erraten protestekin hasiko gara eta bidea moztuko dugu. Herritarrak nazkatuak gaude».



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolona,
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,
Juan Mari Barriola, Inigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranxa Iturralde,
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberrria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkartera

2020ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 39€
eta Malerreka 28€
Leitza 28€
Hego Euskal Herria 47€
Ipar Euskal Herria, Europa 86€
Amerika eta Australia 139€





KOLABORAZIOAK

AMAIA TELLETXEA LARRETXEA

Plazara

Karrera ikasketak borondatez euskaraz egitera joanak ziren batzuek, klasea bukatu eta pasabideko korrotxoetara atera orduko ibiltzen zuten erdara. Denak euskaldunak izanik, zelebrea bezain ulertzeko zaila egin zitzaidan hura sasoi hartan. Zoazte jakitera euskaraz ederki jakinki eta erdaraz bizitzera pasatzeko arrazoiak zeintzuk eta zenbat izanen diren.

Seguru aski, plazara eta ingurura moldatzeko nahia eta beharra izanen da aldaketa hori egiteko arrazoietako bat. Haur denboran edo gizarteratzeko eredu bila gabiltzan garaian bederen, inguru hurbilenean zer ikusi eta aditu, huraxe ikasten eta egiten baitugu.

Inguruko sentimendu kolektibo edo elkarrekintza indartsurik ez duen edozein *gintzatan*, aitzinera egiteko aukerak ikaragarri murrizten direla garbi dago. Erdara aditzen den plaza eta karrika batzuetan, batzuk etsi-etsian itxekitzen zaizkio hari, arront mordoilo ari-eta ere. Bertze aunitzek, berriz, euskara eskolako gauza bertzerik ez dela pentsatuko dute, bizitzako hainbetez kontutarako balio ez duena. Hasiko dira erdaraz behar horiek guztiak betetzen, lagun arte, bikote harreman edo lantegietan.

Euskarari egunerokoan paratzen dizkioten bertzelako trabak inola ere atzendu gabe, belaunaldiz belau-naldi etxean eta plazan transmititzeko moduan asmatzea ezinbertzekoa dela iruditzen zait. Horretan nola ari ote garen? Kontesta prest

«GARBI DAGO BERTZETAN ASEA HELDU DENAK EZ DUELA GOSERIK EKARTZEN»

duenak bota dezala.

Aspaldi xamar *sena duenari dario* erramoldea bota zuen lagun zahar batek. Kar kar kar. Euskaraz bizitzeko gogoa dutenak eta ez dutenak, gogobeteak eta gogogabetuak bereizten zituen, giltza edo koxka barrenean garatzen den senaren baitan dagoela erran nahizik bezala. Hark ere izanen zuen arrazoi pizarra. Garbi dago bertzetan ase heldu denak ez duela gosarik ekartzen. Euskararekiko motibazio eta kontzientziario eskasa duenari, ez zaio egiteko beharrik aisa eginen; ezta hartarako senik ere. Ez du euskarari ongi izaterik, atseginik edo sortzeko gozamen aunitzik bilatuko. Ez du zainduko eta ez du euskaraz eginen harat-honata.

Bizitu egin behar baita, euskarak ematen duena eta euskarari itzultzen zaionaren arteko bortxinga horrek nola elikatzen duen gogoa. Ulertu behar baita ahalegin handiz ikasten hasi eta arrats batean lehendabiziko aldiz euskaraz amets egin duenak zer sentitzen ahal duen. Hamaika arrazoi tiki eguneroko esperientzia handi eta aberats egiten ditugutenak. Eta eskerrak oraindik zerrenda hori hagitz luzea edo luzeegia den, hemen eta orain idazteko.



JOANES ILLARREGI MARZOL

Gazte sortzaileak

Prekarietatea gero eta gehiago entzuten den hitz bat da gaur egungo gizartean, eta ez arrazoirik gabe. Lanpostu ezegonkorak, soldata negargarriak, baldintza ezin txarragoak... eguneroko ogia dira egungo langileentzat. Gazte esparruan prekarizazio hau are basatiagoa da, adibide argia dira banaketa-zerbitzuetan pairatzen diren egoerak.

Baina ni nirean zentratuz, gazte sortzaile modura jasaten ditugun egoerak argitara ateratzeko asmoz nator. Nire arloan, bertsolaritza, zuzeneko da gazte izateak duen eragina. Espazio antzeko samarretatik deitzen gaituzte normalean: gazte sariketetatik (adinez edo sariketa guztietatik pasatu arte), gaztetxeetako saioak, gazte-saioak (ez daudenak hain zabalduta, zoritxarrez)... beti daukagu «gazte» hitza erantsia; bertsolariak baino bertsolari gazteak gehiago gara. Emakumeekin edo lurraldetasunarekin gertatzen den bezala, askotan kuota edo kupoa betetzeko deitzen gaituzte saioetatik, gazte bat behintzat egon dadin.

Plazak esleituta daude, funtzionarioekin gertatzen den gisan. Leku zehatz batzuetan bertsolari zehatz batzuk deitzera ohituta daude, «lehen mailakoak» deituko genituzkeenak. Eta zirkuitu horretan sartzea oso zaila dago, nahiz eta batzuk lortzen duten. Txapelketek markatzen dute

«BERTSOLARIEN PLAZAK ESLEITUTA DAUDE, FUNTZIONARIOEKIN BEZALA»

zirkuitu horretan sartzeko erritmoa, bertan «erakutsi» behar da, mundutxo horretan sartu nahi baduzu. Bestela, tartean-tartean saioak eduki ditzakezu, baina ez da zerbait konstantea izango. Dirurik ez dagoenean ordaintzeko, gu deitzen gaituzte, askotan mesede bat egiten ariko balitzaizkigu bezala, plaza bat eskaintzeagatik. Eta egia da eskertzekoa dela gazteen aldeko apustua egitea saio bat antolatzeko orduan, baina kontzientea baldin bada, ez baldintza ekonomikoengatik «maila altuagoko» bertsolariari ordaindu ezin dietelako deituz gero.

Nire esperientziatik gertatu izan zait saio batean kantuki-deek baino gutxiago kobratzea, herritik kanpo den bertso saioetara joan eta azkenean dirua galtzen ateratzea...

Eta noski ez gabiltzala mundu honetan aberasteko asmoz, futbolari izaten saiatuko baikinakeke bestela. Baina baldintza minimo batzuk bermatu beharko lirakekeela uste dut: , harrera eta tratu duin bat egitea, dirurik galtzen ez ateratzea eta gutxieneko baliabideak (mikrofonoak...) bermatzea, besteak beste.

Hala ere, goraipatzekoak dira gazteen aldeko hautu kontzientea egiten duten antolatzaileak, ate bat zabaltzen dituguten gazteoi gustatzen zaigun horretan jardun gaitezen, gozatzen eta gozarazten jarraitu dezagun. Gutxinaka bidea egiten joango gara, gazteok asko baitaukagu esateko!

11 GALDERA LABUR

JON MAKAZAGA OTXANDORENA GOIZUETA

«Motorrean ibiltzeak indarberritu egiten nau, askori siestak bezala»

Nor da Jon Makazaga?

Motorra eta kirola afizio dituen goizuetarra.

Noiztik ibiltzen zara motorrean?

Aitaren eta osabaren arrimuan hasi nintzen, gazte-gaztea nintzela. Lehendabiziko motorra osabak ekarri zidan sei urte nituenean. Halaxe hasi nintzen, etxean lehendabizi eta lagunekin gero.

Eta txapelketetan?

Orain dela hiru urte, lagunek animatuta. Hasieran lasterketa batzuk baino ez nituen egin... Probatu eta gustatu egin zitzaidan. Iaz, lehenbizikoz, txapelketa osoa egin nuen.

Zertan aldatu zaizkizu lasterketak hasiera hartatik?

Lehendabizikoa gogorra izan zen. Mendian asko ibilia nin-

tzen baina lasterketetan ibili gabea... Urduri nengoen, ia lorik egin gabe joan nintzen eta, bukatu banuen ere, gaizki ibili nintzen. Orain, abiatu aurretik urduritasuna sumatuta ere, hasi bezala lasaitu egiten naiz.

laz Euskal Herriko txapelketan bigarren postua lortu zenuen...

Erresistentzia probak dira eta, sufritu arren, ongi ibili nintzen. Karrerak irabazi gabe, konstantea izan naiz. Beti hirugarren eta laugarren postuetan ibiltzeak abantaila eman dit.

Aurtengo zer asmo duzu?

Libre dudanean parte hartuko dut. Lana eta umeak ditut lehentasun...

Nola moldatzen zara familia, lana, lasterketak... uztartzeko?



Txandaka lan egiten dut eta astegunetan denbora izaten dut. Antolatuz gero bada astia! Gainera, andrea ere on samarra dut... (irri artean).

Zer da motorra zuretzat?

Dena. Etxean eta inguruan betidanik ikusi dut eta nire bizitzaren zati da. Jendea siesta eginda indarberritzen den bezala, ni motorrean ibilita egiten naiz.

Motorrik gabeko asteburu batean... zein da plan ederrena?

Familiarekin egotea edo norabait joan eta otordu bat egitea.

Motoan edo moto gabe, Goizuetan ezagutu beharreko txoko bat? Mandubiko kaxkoa, herriko txoko guztiak eta ingurua ikusten da.

Amets bat?

Motor mundutik bizitzea. Betidanik tailer bat irekitzea izan dut amets. Gaur egun, konpontzen aritzen naiz baina ez naiz hortik bizi.



Merkealdia

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Fundak nordikoak eta edredoiak espezialistak



GOITI ETA BEHEITI



Iaz erretiratutako langileak omendu ditu Correosek



Joan den otsailaren 7an, iaz erretiratutako Nafarroako langileei omenaldi-bazkaria eskaini zien Correosek. Horien artean zegoen Jabier Maritxalar Berrueta *Bittiri* lesakarra. Argazkian gibeletxo lerroan ageri da, eskuinetik hasita bigarrena.

BOTA BERTSOA



XABIER GARRAUS MUGURUZA
ITURENGO BERTSOLARIA

Inauteriak

Doinua: Habanera

*Badatoz, etorri dira
ihauterien egunak
Ze mozzorro aterako,
astin ditzagun garunak
peluka, trapuk, maskarak,
animali adardunak
mundo osoan bait dira
famatu ospakizunak
maskaradak iparraldin,
kalderero euskaldunak
puskak biltzea Sunbilan
garaituz berdintasunak
dantzari musikariak,
emanez ikuskizunak
mielotxin, momotxorro,
zakozar ta joaldunak.*

*Besteek zer dute esango,
ihauteetan bost axola
nahiz urte osoan ere
hau izan behar luke hola
taupadak bizkortzen doaz
ta goruntz kolesterola
giro hotzari eraso
ongi sartzen da alkohola
mozzorroa ganean jarriz
puskatzen dugu eskola
mamuak erre orduko,
bur-bur jartzen da odola
mundo ero hontan goaz
denok aurrera edonola
tartetxo bat hartu eta
galdu dezagun kontrola.*

GOITI ETA BEHEITI



Ibilgailua biluzik utzi dute

Joan den astean, Berako garaje batean sartu eta barrenean zegoen 4x4 ibilgailuaren piezak ebatsi zituzten: abiadura-kaxa, lau gurpilak, ardatzak. Garajeko erremintak ere eraman zituzten. Lapurreta gehiago ere izan dira azken aldian.



IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Bitxikeriak

Ahozko literaturaren altxorra ez galtzeko, garai honetarako ohikoak diren atsotitz edo erranera zahar batzuk bildu ditugu hemen, ikasi eta erabiltzeko.

Ilbelta egiten badu txuri, ardiak haziko du axuri

Negu elurtsu, urte garitsu

Urtarrila urik gabe, urtea ogi gabe

Otsailean bero, negua gero

Kandelario egunean (otsailak 2) eguzkia ikustea baino, otsoa ardi tartean hobe

Zein da zuzena?

Anitz, aunitz, ainitz, asko... Zein da zuzena?

Hiru aldaerak onartuta daude, eta gainera maila bera dute, ez dago bat bertzearen gainetik hobetsia.



Kalko ustelak

Gero eta gehiago zabaltzen ari da orainaldia eta geroaldia nahasteko joera hori baina erdarakada nabarmena da. Euskaltzaindiak dioen bezala, ez da zuzena etorkizuneko

*JOATEN GARA? > JOANEN (AL) GARA?

kontuez ari garela (planak egitean, aginduak ematean, mesedeak eskatzean...), aspektu burutugabea erabiltzea gertakizunekoaren partez:

- *Gaeuan, joaten gara zinemara? > **Gaeuan, zinemara joanen (al) gara? Zer iruditzen zaizu gaeuan zinemara joaten bagara?**
- *Ematen didazu liburua? > **Emanen (al) didazu liburua?**
- *Zer, hasten gara lanean? > **Zer, hasiko (al) gara lanean?**
- *Zer egiten dugu orain, andereño? > **Zer eginen dugu orain, andereño?**

Nola erran?

Irakurle batek 'Ze ba' adieraren erabilerarekin kezkatuta idatzi digu...?. **Ze ba, ez dut nahi, Ze ba erori zara?** 'Ze ba' iskin guztietan ikusten duela dio. Etxean 'ze ba' hori 'zer bada?' galdera soila bezala erabili izan dutela dio. Eta hala da, arrazoia du irakurle horrek, Baztan eta Bidasoko hainbat gazteren hizkeran hedatzen ari da baina ez da egokia. Ze ba > Zer ba (da)? Azalpenak eskatzeko erabiltzen den galde-esapidea da, beti bera bakarrik erabili beharrekoa, ez du bertze elementurik onartzen inguruan:

- Patxiku, ez (al) dakizu zer pasatzen den? – Zer, ba (da)?

Desegokia da zergatik, zerta(ra)ko, edo gisako galde-hitzen tokian erabiltzea:

- ***Ze ba egin duzu hori?**
Zuzena honela da: Zergatik egin duzu hori?
- ***Ez dakit ze ba etorri den hain goiz.**
Honela behar luke: Ez dakit zergatik etorri den hain goiz.
- ***Hori egin dut ze ba amak erran dit**
> Hori egin dut (zeren) amak erran baitit/didalako.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Ahizpari gertatu zitzaionarekin bizitzen ikasi dugu»

ESTI, OLATZ ETA UXOA MUTUBERRIA MENDIKOA NARBARTEKO AHIZPAK

Duela 14 urte ahizpa galdu zuten auto istripu batean. Egun hartaz mintzatu dira TTIPI-TTAPAREKIN eta garbi dute halako ezbeharrak saihesteko neurriak hartu behar direla

G. PIKABEA NARBARTE

Ez dute atzendua zoritxarreko egun ilun hura. Heriotza parez pare, bere gordintasunean, ezagutu zuten eguna. 2006ko maiatzaren 6a zen Jaione Mutuberrria Mendikoa (Narbarte, 1987) auto istripuz hil zenean. 18 urte baino ez zituen eta albisteak gogor astindu zuen bere ingurua; kolpe handia izan zen eta zer erranik ez Jaioneren ahizpa Esti (1989), Olatz (1994) eta Uxoarentzat (1996).

Lau senideen artean zaharrena zen Jaione, «neska alaia, bestazalea, umoretsua, langilea eta arduratsua» zela erranez oroitzen dute hiru ahizpek eta gehiago ere aitortu dute: «ttikitatik gure erreferentea zen». 14 urte beranduago, gai dira egun hartaz eta eragindako minaz, halako ezbeharrak gertatzean sentitzen duten «penaz eta enpatiaz» eta errepideak sorrarazten dien «errespetuaz» solas egiteko. Halere, onartu digutenez, «elkarrizketa honetan jakin dugu bakoitzak nola bizitu genuen eta nola izan genuen gertatutakoaren berri; etxean, ez gara inoiz solastatu».

Auto istripua

Istripua Oronoz-Mugairi eta Arraioz lotzen dituen N-121-B errepidean gertatu zen. Itxura denez, bidean olio isuria zen, eta euriarekin errepidea bustia zegoen; Jaionek autoaren kontrola galdu eta parean zetorren autoa jo zuen eta parearen kontra gelditu zen.

Larunbat euritsu hura

Estik 17 urte eginak eta Olatzek 12 eta Uxoak 10 urte betetzear zizuzten ahizpa galdu zutenean. Geroztik, eguna oroimenean iltzatua dute. Olatzek, erraterako, gogoan du «larunbata» eta «egun euritsua» zela.

Esti ere xehetasun handiz oroitzen da egunaz. Ahizpa gazteenak baserrian eta gurasoak mendian zeudela, bera izan zen etxera egin zuten telefono dei batekin lehenbiziko zanpatekoa hartu zuena. «Jaionek eta biok elkarrekin gosaldu genuen eta gero, astebururo bezala, lanera abiatu zen. Eguerdiko ordu bata eta laurden aldera Elbeteko Belenek

deitu zuen etxera, Jaione ez zela lanera ailegatu eta harrituta zegoela erranez». Orduantxe hasi zen urduritzen: «Jaioneri mugikorrera deika hasi nintzaion baina ez zidan erantzuten. Bere mutil-lagunari deitu nion, eta Mugairin istripu bat izan zela eta hildakoak izan zirela erranez arrebak deitu ziola kontatu zidan». Hori aditu orduko hasi zen laguntza eske: «gidabaimenik ez nuenez, etxetik atera eta solasean ikusi nituen lagunetako bati Mugairira eramateko eskatu nion».

Istripua gertatu zen tokira ailegatu aitzinetik «garabi gainean bertze kotxea» ikusi zutenean, «okerrena» pentsatu

omen zuen. Ailegatu zenean, guardia zibilek bidea moztua zutela gogoan du eta «oinez hurbilduta» ezagutu zuen kotxea. «Kotxekoaren ahizpa nintzela erran nien oihuka eta hildakoa bera zela baieztatu zidaten, eta gorpua Iruñera eramane behar zutela».

Egoerari buelta eman ezinda, gurasoei deitu zien lehenbizi: «hilda zegoela erran gabe, berehala etortzeko eskatu nien». Baina gurasoak menditik jais-terako «denbora aunitz» pasatu zenez, ailegatu aitzinetik amak hala eskatuta egia kontatu zien. «Hortik aitzinera amatxiri, familiakoei, bere mutil-lagunei, lantokikoei... denei abisatu genien».

Baserrian ezbeharraren berri

Olatzek eta Uxoak baserrian jakin zuten gertatuaren berri: «larunbatero bezala, aitaxi eta amatxirekin geunden baserrian eta gurasoak mendira joanak ziren ardiak eramatera», azaldu du Olatzek. Berak erantzun zuen Estik baserrira egindako deia: «arront urduri zegoela nabaritu nuen eta amatxirekin solas egin nahi zuela erran orduko amatxiri eman nion telefonoa». Telefonoa eskegitakoan, «Jaione eskaileratan



Ezkerretik hasita, Jaione, Esti, Olatz eta Uxo Mutuberrria Mendikoa ahizpak, adinaren arabera lerroan jarriak.

erori zela eta buruan kolpea hartuta Iruñera eramán behar zutela erran zidan amatxik». Kontatutakoa sinetsi eta huraxe izan zen ahizpa gazteenari kontatu ziona. Agudo jakin zuten egiazko bertsioa: «Handik gutxira lehengusina eta izeba baserrira etorri ziren eta telefonoz ari zirela, Jaione hil zela aditu nien. Uxoarengana joan nintzen kontatzera». Amatxirengana sukaldara hurbildutakoan baieztatu zien egia zela.

Elkarren babesean aitzinera

Gertatutakoa onartzea ez zitzaien erraza egin. «Dolua ikaragarria» izan zela diote: «momentu horietan ez duzu sinesten, dena beltza, isila eta hutsa da». Etxeko egoera «bortitza» ere gogoan dute: «bakoi-tzak gure mina genuen, baina min hori are zailagoa zen kolektiboa zelako. Denak gaizki geunden, min handiarekin, eta ingurura begiratu eta ikaragarritzko mina sumatzen genuen. Aita eta ama, gure babesle eta pilareak, lur jota ikustea arrot zaila izan zen».

Hasiera hartan jendearen babesak lagundu zien: «familia, lagunak, barrideak... hasieran jendea gurekin egon zen eta denei aunitz eskertzen diegu. Baina bizitzak jarraitzen du eta bakoitzak bere bidea hartu zuen. Orduan hasi ginen benetako hutsunea nabaritzen, egunerokoan». Bide horretan, esker oneko hitzak dituzte Iratxe lehengusinarentzat:

«MINA GAINDITZEA ARE ZAILAGOA DA KOLEKTIBOA DENEAN»

«ONARTEZINA DA JENDEA MODU HORRETAN HILTZEA»

ESTI, OLATZ ETA UXOA MUTUBERRIA



Eszerretik hasita, Uxoa, Olatz eta Esti, Jaione ageri den argazkia gibelean dutela.

«lehendik ere harreman arrot estua genuen berarekin, baina ezbeharraren ondotik, ia egunero gurekin egon zen, errateko moduan etxean gurekin bizitzen, eta horrek aunitz lagundu zigun». Etxean elkar babestuz segitu zuten bidea eginez: «betitik arrot elkartuak izan gara etxean, bai ahizpak baita gurasoak ere, eta honela egin genuen aitzinera», maiz «arrot egun txarrak» pasatuz, «berezi lehenbiziko urtean, mingarria» izan zelako.

Bizitzako ikasbidea

Badira oroimenean beti gordetako dituzten kontuak. Istripuaren tokia, adibidez, memorian dute: «bere azkeneko arnasa hartu zuen lekuan plaka bat paratu genuen eta guretako beti leku berezia izan da. Egunero ez bada, maiz pasatzen gara bertatik, eta txukun mantentzen saiatzen gara». Gainera, hasieran hortik pasatzean «arraro» sentitzen baziren ere, «orain naturalta-

sunez» egiten dute bidea. Autoa hartzea ere ez da kezka iturri izan: «adina bete ahala hirurok gidabaimena berehala ateratu genuen; gurasoek animatuta, beraiek ere lan handia egin dute horretan».

Errepideari, ordea, «errespetua» diote, «segurtasunez gidatu arren, inoiz ez baitakiguzergerta daitekeen». N-121-A ren kasuan, «onartezina» iruditzen zaie «jendea modu horretan hiltzea. Orain artekoak galdu ditugun arren, hemen aitzinerakoak saihesten saiatu behar dugu eta guk ere gure esku dagoen guztia egin dugu». Halakoak saihesteko «norberak egin dezakeenaz» eta administrazioak hartu beharreko neurriez aritu dira: «mugikorra, abiadura, arreta, errespetua, presak alde batera utzi... denok dakizkigu baina maiz atzentzen zaizkigu. Horrez gain, errepide horretan ibiltzen den ibilgailu kopuruak ez du batere laguntzen. A-15 autobidea dohainik izateak

hemengo trafikoa murrizten lagunduko luke». Etxean tokatu zaienarekin, «lasaiago» gelditzen omen dira «hurbilekoak ongi ailegatu direla abisatzen digutenean, batez ere ezohiko bidaietan».

Istripuen berri izateak ere ezinegona sortzen die, baita «beldurra» ere: «lehenbizi etxekoei deika hasten gara ongi dauden jakiteko». Baina etxekoa ez denean ere «pena handia» sentitzen dute, baita «enpatia» ere, «heldu zaiena zer den badakigulako. Ezagunak izanez gero, doluminak ematera joaten gara eta momentu horietan gure mina azaleratzen zaigu. Batzuetan uste baino gogorragoa egiten zaigu».

Erran beharrik ez dago ahizpa beti izanzen dutela bihotzean, «Jaioneren oroitzapenak eta bere anekdotak» oroimenean izanzen dituztela, eta orain arte bezala, «egunero» oroitu direla beraz. Halere, argi dute: «bizitzak jarraitzen du eta guk horrekin bizitzen ikasi dugu».

Urte hasiera beltza errepiderik ilunenean

Urtetik urtera N-121-A errepidean gertatzen den istripu kopurua hazten ari da. Aurtengo urte hasiera ere beltza izan da, eskualdeko hiru lagun hil dira auto istripuz eta azarotik honat bortz. Alkateek nazioarteko garraioan ari diren kamioiak A-15 autobidetik desbideratzea eskatzen dute

G. PIKABEA

Beltza da errepidea, albiste ilunen lekuko. Ez da ez oraingo kontua, ez uste kontua; datuak dira hori baieztatzen dutenak. Nafarroako errepide sare nagusian, Iruñea eta Behobia lotzen dituen N-121-A da istripu gehien izaten diren errepidea; bataz bertz 125 istripu urtean. Ezbeharren ondorioak ere okerrenak dira. 2010az geroztik 32 lagun hil dira 24 istriputan; azkena otsailaren 6an, 55 urteko Luis Andueza Agara arantzarra, Behobian. Sobera gibelera egin gabe urtarrilaren 11n Olaguen, Lesakan bizi zen eta Arantzarekin harreman estua zuen Mikel Manzano Altuna 21 urteko donostiarra eta Xabier Taberna Telletxea 19 urteko igantziarra zendu ziren eta azaroan Klara Iribarren Sukilbide eta Emili Azkarraga Iribarren, 78 eta 51 urteko Azpilkuetako ama-alabak Ostizen. Zerrenda luzea da. Joera, gainera, gero eta makurragoa da; azken urteotan hazi egin da istripu kopurua. 2010ean 123 istripu izan ziren, 2017an 140, 2018an 137 eta joan den urtean 154.

Punturik arriskutsuenak

2010etik 2018ra arteko datuak kontuan hartuz, txostena egin du Foruzaingoak eta horren arabera, Ezkabako tunela eta Burutain lotzen dituen tartean eta Almandozko tunela eta Sunbilla arteko zatian izaten dira istripu gehien: 2010etik 2018ra, 283 eta 257 ezbehar izan ziren, hurrenez hurren.

Kilometroka, ordea, Berako harrobia eta Enderlatsa lotzen

dituen 4,9 kilometroko zatia da punturik beltzena: 33 istripu zenbatu dituzte kilometro bakoitzeko. Horren gibeletik, Ezkabako tunelaren eta Burutaingo gasolindegia arteko 11,3 kilometroko zatia dago, kilometroko 25 istripurekin.

Hildako gehien, berriz, Burutain eta Belateko tunelaren artean eta Almandozko tunela eta Sunbilla artean gertatutako istripuetan izan dira; 2010etik 2018ra 20 lagun hil dira, hamarna lagun zati bakoitzean.



Nazioarteko garraioa desbideratzeko eskaria aspaldikoa da. Irudia 2018koa da.

Sinadura bilketa abiatu dute

Nafarroako politikariei N-121-A errepideko istripuak murrizteko eskatuz, sinadura bilketa abiatu du Mikel Manzano Altunaren familiak. Epe laburrean kamioien trafikoa erdira murriztea eskatzen dute eta horretarako bi tuneletan obrak egin ziren garaian bezala, ibilgailu astunen trafikoa matrikularen arabera mugatzea egoki ikusten dute, argi baitute errepide hori ez dagoela nazioarteko garraioarentzako prestatua. «Mikel eta Xabier bezala hildako gehiago izan ez dadin», presioa egiteko eskatu diete Nafarroako herritarrei. *Osoigo.com* plataforma digitalaren bitartez eskaini daiteke babesa.



Manzano-Altuna familia. D. NOTICIAS

Datu deigarri gehiago ere bildu dituzte txostenean: asteko egunen arabera, asteartea da istripu gehien izaten diren eguna eta hilabeteei erreparatuz, urtarrila.

Aspaldiko eskaria

Aspaldikoa da N-121-A errepideari soluzioa emateko eskaria, inguruko udal ordezkariak eta herritarrek urteak daramatzate konponbide eske. Urte hauetan guztietan elkarretaratzeak, manifestazioak, prentsaurrekoak, bilkurak... egin dituzte. Alkateen arabera, arazoaren oinarrian N-121-Atik igarotzen den trafiko handiegia dago. 1997an Belateko eta Almandozko tunelak inauguratu zituztenetik, trafikoak nabarmen egin du goiti. Gaur egun, egunean, bana bertz 10.000 ibilgailu ibiltzen dira eta horietatik 2.500 bat kamioiak dira. Hori ikusita, nazioarteko zama garraioan dabiltzan ibilgailu astunak N-121-A errepidetik ateratzea eskatzen ari dira aspaldian.

Urtea hasi denetik ere sarritan egin dute aukera horren alde, bai Parlamentuari baita Gobernuari ere idatziz zein aurrez aurre horixe eskatuz. Urtarrilaren 28an, erraterako, Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordean egindako lan-saioan, N-121-A errepidearen inguruko herrien izenean bortz alkatek parte hartu zuten, tartean, Juankar Unanua, Xanti Uterga eta Joseba Otondo Igantziko, Doneztebeko eta Baztango alkateek. Eskaera bakarra paratu zuten mahai gainean: «premiatzkoa da nazioarteko zama garraioan dabiltzan kamioiak N-121-Atik ateratzea». Bi egunen buruan, Parlamentuak mozioa onartu zuen Gobernuari ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeke neurriak eskatuz.

Gobernuaren jarrera

Unanua «baikor» baloratu du «Parlamentuan gure arazoa azaltzeko aukera eduki eta

Parlamentuak mozioa aitzinera aterazana». Baina ez du jarrera bera sumatzen Gobernuarengan: «Parlamentuko lan-saioaren egunean Gobernuko ordezkariekin bildu ginen, eta euren aldetik ez genuen gure eskaera aitzinera ateratzeko intentzio handirikikusi». Bide beretik jo du Otondok: «hondar momentuan, gizar teak egindako presioaren edo Parlamentuan egindako agerraldiaren ondorioz, Gobernuak berak eskatutako bilkura izan zen, baina hartu nahi dituzten neurriak aurkezteko baino ez zen izan, deus bertzerik ez».

Momentuko neurriak

Gobernuak «oraingoz» nazioarteko trafikoa desbideratzeko aukera baztertu du eta 2+1 motako errepide bihurtzeko aukerari eta berehalako bertze neurri batzuei heldu die: hiru erreiko zatietan aitzineratzeak noranzko bakarrera mugatzea (otsailaren 3tik indarrean), radar eta kontrol gehiago paratzea, bide-zorua berritzea, tuneletan argiztapena hobetzea, herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea... Horrez gain, Berako harrobiaren eta Enderlatsaren artean proiektu pilotu bat martxan paratu nahi dute. Kameraren eta teknologia artifizialaren bidez, bidea denbora errealean behatu nahi dute eta gidarien jokamoldeak aztertu. Ezbehar-tasa murrizteko asmoz, bertze hainbat faktore ere aztertuko dituzte, hala nola, abiadura, ibilbidea, klimatologia...

Benetako soluzio bila

Gobernuak proposatutako neurri horiek, ordea, «ez dira aski» alkateen irudiko. Igantziko alkatearen ustez, «ez dira benetako soluzioak» eta Baztango alkatearen arabera, «neurri horiekin eskualdeko erabiltzaile guztiengan gelditzen da arreta eta ardura guztia. Egunero hor dabilenak betiko kamioi ilarak jasaten segitu beharko du eta gainera, hemendik aitzinera, hainber-

tze neurri murriztaile hartu beharko ditu kontuan».

Gehiago ere kontatu du: «errepide horretan gertatzen diren istripuekin kamioiek ez dutela deus ikustekorik erraten dute, istripuak giza-faktoreengatik gertatzen direla. Baina kamioiek istripuetan eraginik ez badute Baztan-Bidasoko auto-gidariak Nafarroa guztiko txarrenak direla ondoriozta daiteke eta begi-bistakoa da

hori ez dela horrela». Bere irudiko, «egunero hainbortze kamioiekin gurutzatzeak ezin negona sortzen du autoan dabilenarengan, nahasmendua eta autoa gidatzeko modu jakin bat. Hortaz, kamioiek istripuetan duten ondorioa modu objektiboan hartzen ahal da».

2+1 formula

2+1 motako errepidea bihurtuz, noranzko bakoitzeko errei bana

eginen dute, eta erdiko lerro gehigarri bat ibilgailuen arteko aitzineratzeak errazteko. Bigarren errei hori noranzko batean edo bertzean tarteka txandakatuko dute.


Gobernuak bortz zatitan bereizi du 70 milioi euroko aurrekontua duen 2+1 proiektua eta lehenbizikoarekin –Ez-kabako tunela eta Olabe arteko bortz kilometroko zatia– aurtun hasiko da. Zatia →

N-121-A ERREPIDEA


2010-2018 istripuak eta hildakoak zati bakoitzean



Istripuen bilakaera



ITURRIA: Nafarroako Gobernu eta Foruzaingoa



32 lagun

hil dira 24 istriputan 2010etik



10.000 ibilgailu pasatzen dira egunean



Asteartea

da istripu gehien izaten diren eguna (2010-2018ko datuen arabera)



Urtarrila

da istripu gehien izandako hilabetea (2010-2018ko datuen arabera)

SINADURA: Ttipi-Ttapa

→ udan esleitzeko asmoa du, lanak urte hondarrean hasteko. Olabetik Enderlatsara bitarteko bertze lau zatien proiektua idazten ari direla ere jakinarazi du. Horrekin batera, 70 kilometroko bidetik 35 kilometrotan 0,60 metroko altuera duen barrera metaliko bertikala paratuko du bi noranzkoak bereizteko.

Lan gehiago ere aurreikusiak dituzte: 2025erako Belaten eta Almandozen noranzko bakarreko bi tunel eraikitzeak dira -100.000 euroko aurrekontua izanen dute lanek-. Tunel bat Belaten eraikiko dute eta bertzea Almandozen, bakoitza bi erreirekin. Europako araudira egokitzeko hartuko dituzte neurriak, joan den apiriletik, arrisku handiko tunelak izendatuak baitira, aireztapen aldetik gabeziak dituztelako eta larrialdietako irteerarik ez dutelako. Belateko tunelak 3,6 puntuko arrisku maila omen du eta Almandozkoak 2,3koa; eta onartutakoa 1,5ekoa da.

2+1 baino gehiago

Baina alkateek ez dute begi onez ikusten 2+1 formularen eraginkortasuna. «Ez da nahikoa», dio Unanuak: «errepidea moldatu zutenean, kamioi gehiago sartu ziren eta gaur egun, bidea hobea bada ere, hagitz arriskutsua izaten segitzen du».

Otondok argi zehaztu ditu lehentasunak, «N-121-A errepidean planteatzen dituzten obra guztien artean, lehentasuna Sunbillako eta Berako puntu beltzek dute. Ez dakit zer konponduko den 2+1 formularekin, ez dirurik ote duten egiteko ala ez, baina guk eskualdetik argi ditugu eskaerak».

Puntu beltz horiek «seguru bihurtzearekin» batera, nazioarteko zama garraioan dabilen ibilgailu astunen trafikoa desbideratzea da alkateen irudiko bidea: «trafiko hori egokiagoa den errepide bategatik desbideratu behar da, kasu honetan, A-15 autobidetik», azaldu du Otondok eta Una-



Hiru erreiko zatietan aitzineratzeak noranzko bakarrera mugatu dituzte. Argazkia Doneztebeko IAT parean hartua da.

nuak, berriz, «A-15 autobidea hor izanda N-121-Atik pasatzeak ez duela inongo zentzurik» azpimarratu du. «Gainera, aukerarik merkeena da», gehitu du. Nabarmendu nahi izan

du «garraiolariak ez direla errudunak. Errepidea bera da holako garraio zama hartzeko prestatua ez dagoena. Ulertzen ditugu euren kezak, baina ezin dugu euren erosotasunagatik

arrisku hau gure gain hartu. Ulertzekoa dela uste dut».

Otondok oroitarazi duenez, «orain guti Errioxan, N-232 errepidean gisako neurria hartu dute. Estatuko Gobernuaren errege dekretu batekin, errepide horretatik nazioarteko zama garraioaren pasabidea galarazi dute autobidetik joatera behartuz».



«LANEAN SEGITUKO DUGU, ATEA EZ DAGO ITXITA»

JOSEBA OTONDO, BAZTANGO ALKATEA



«GOBERNUAREN NEURRIAK EZ DIRA NAHIKOAK»

JUANKAR UNANUA, IGANTZIKO ALKATEA

Alkateak gaiari segida emateko prest

Gobernuakoraingoz ezetzerran badu ere, hautetsiek ez dute geldirik egoteko asmorik. N-121-A errepidearen inguruko alkateak elkarlanean ari dira eta hasitako bideari eutsi nahi diote: «lanean segituko dugu, aitzindaritzaz hartzen saiatuko gara, lehentasunak markatu eta administrazioen eta herritarren aldetik ahalik eta babes handiena bilatzen». Aukera ez dagoela guztiz itxita dio Otondok, «Parlamentuak Gobernuari azterketa juridiko bat eskatu dio nazioarteko zama garraioan dabilen ibilgailuak desbideratzeko aukera aztertze eta alde horretatik bidea ez dagoela itxita ulertzen dugu». Unanuak ere «borrokan» segituko dutela berretsi du, «ez dugulako ezinezkoa den zerbaitez eskatzen».

Eztabaida orokorragoa

Gaiak «eztabaida orokorragoa» behar duela uste du Joseba Otondok: «Europako Garraioaren Liburu Zuriak zama garraioa errepidetatik atera eta bertze komunikazio bideen bidez bulkatu behar dela dio. Austrian zama garraioaren %48a trenez egiten da, Alemanian %24a eta Nafarroan %1,4a. Hamarkadetan egin diren garraio politikek ez dituzte arazoak konpontzen, eta gainera, Europako ereduetatik urrun gaude». Ekonomiari buruz «gogoeta» egiteko beharraz ere aritu da: «ze zentzu du Europako punta batetik bertzera merkantzia ibiltzeak? Horren onurak eta kalteak nork hartzen ditu?».



Tanturumairu ikastolako haur kantariak hasiak dira entseguetan. UTZITAKOA

Haur kantari jaialdietako bat Lesakan egingen dute

Martxoko lau larunbatetan egingen diren saioen ondotik, jaialdi nagusia Barañainen egingen dute apirilaren 4an

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Nafarroako Haur eta gaztetxo kantari jaialdiak antolatu dituzte. Nafarroa osoko haur eta gaztetxoek bilduko dituzten lau emanaldi egingen dituzte, martxoko lau larunbatetan: hilaren 7an Antsoainen, 14an Lesakako Harriondoa Kultur Etxean, 21ean Zarrakaztelun eta 28an Lizarran. Jaialdi nagusia apirilaren 4an egingen dute Barañainen.

1992. urtetik

Jaialdi hauek duela urte aunitz ospatzen dira, 1992tik hain

zuzen ere, Kantuzale Elkar-tearen eskutik. Elkar-te honek langile bat zeukan horrelako ekitaldien antolaketaz arduratzeko baina dirulaguntzarik gabe geratu zirenetik, Amaia Dominguez Gonzalok, Elkar-teko kide eta musika- irakasleak, haurren jaialdi hauek bere esku hartzea erabaki zuen. 2012tik darama hauek antolatzen, desagertu ez daitezen, euskara eta euskal kantua zabaltzen baitute eta gure komunitateko haur eta gaztetxoek ahaztuko ez dituzten sentsazio eta sentimendu mordoan eragile ere badirelako.



AINHIZE IRAZOKI

Bizipoza egitasmoa aurkeztu dute

Gure bizipoza, guztiona dokumentalaren eta dokuwebaren aurkezpena arrakastatsua suertatu zen otsailaren 7an Berako Kultur Etxean. Estitxu Fernandez eta Anabel Arraizak aurkeztu zuten saioa eta Gure Txokoa dantza taldeak, Julen Zelaietak, Joseba Irazokik eta Pettik elkartasun keinua egin zuten.



LOREA ARANGOA

Gitarra eta biolontxelo kontzertua

Otsailaren 9an Etxalarko elizan Balen Lopez de Munain eta Paola Zannonik eskaini zuten kontzertuak ikusmina sortu zuen. 80 lagun inguru bertaratu ziren eta bi musikari haundi hauek eskainitako gitarra eta biolontxelo doinuez gozatzeko aukera izanen zuten ordu bete pasa iraun zuen emanaldian.

Dasta ezaguz!

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
 Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

BERONA
 BIDASOA ASISTENTZIAK
 UR BEROA ETA BEROKUNTZA

Laguntza tekniko multimarka,
 ikuskapen eta berrikuspen ofizialak:
 Galdarak eta gas-berogailuak · Gasolio-galdarak
 Pelet galdarak eta berogailuak · Termo elektrikoak
 Gas-ikuskapenak · Irtenbide energetikoak
Marka guztiak

WhatsApp icon, 24h icon
 T. 629 758 226

berona@berona.es
 www.berona.es



Asier Apezetxea garaile Colladarako kilometro bertikal bikoitzean; Jone Zelaieta eta Ainhoa Etxegarai Urdazubiko podioan eta taldekideak Arantzan. MANTTALE

69 lasterketetan zortzi garaipen lortu zituen iaz Manttalek

Ane Elzaundiak lau garaipen lortu zituen, Asier Apezetxeak hiru eta Gwendal Larquek bat

TTIPI-TTAPA

Manttales Mendi Lasterketa Taldeak mendiko zein errepideko 69 lasterketetan parte hartu zuen 2019ko denboraldian. Bere ibilbideko hamaugarren urtean zortzi garaipen lortu zituen Manttalek. 69 lasterketatik 47 mendikoak izan ziren, eta 22 errepidekoak.

Ane Elzaundiak garaipenen erdiak lortu zituen, Goizutral, Berako Gau Krossa eta Sara Korrika lasterketak irabazteaz gain, Donostiako Lilatoian lehen juniorra izan baitzen. Asier Apezetxeak hiru garaipen lortu zituen Sara Korrikan, Oleta-Yasola-Oleta lasterketan eta Collarada Villanuako (Hues-

ca) kilometro bertikal bikoitzean.

Gwendal Larquek garaipen bat lortu zuen denboraldi hasieran, otsailaren 10ean Donibane Lohitzuneko Ihaute-riko Lasterketa irabazita, bederatzi kilometroko distantzian.

Manttalesko harrobia Ainhoa Etxegarai, Ganix Arruti, Aimar Zubieta eta Jon Iparragirre bezalako gazteekin sendo ageri da.

Manttalesko hogeita hamar korrikalarik parte hartu zuten Zestoako Kobaz Koba Trail, Lezo-Jaizkibel, Senpereko Ibar Run, Senpereko Trail, Galar Trail, Aiako Mendi Lasterketa, Berako Mendi Maratoi Erdia, Sara Korrika Trail, Arantzako

Mendi Lasterketa, Lakuntza-Aralar, Extreme Higa Monreal eta Biriato Pottok Trail mendi lasterketetan.

Asfaltozkoak, berriz, honako hauek izan ziren: Behobia, Burgosko maratoia, Irungo maratoi erdia, Txingudi Korrika, Gasteizko maratoia, Guadalupe, San Martzial eta Lizuniagako igoerak, Doneztebeko krosa, Zubiri-Iruñea eta Irungo gaueko lasterketa.

2020 denboraldia ere ongi hasi dute Manttaleskoek, izan ere urtarrilaren 19an Josema Huizi espainiar estatuko txapeldunorde izan zen Beret Montgarri-ko Snowrunning-ean, beteranoen B kategorian, espezialitateko Espainiako Kopako lehen proban.

JAIONE - COXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Alberto RETEGI
abokatuak
948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

Auzoa GO!
Etchez etxeko zerbitzua BERAn
ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Goieko INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUOK
DESIN BERA
DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com



Portu etxea, Itzea auzoan. Ondare baliabideen gunea egin nahi dute bertan. UTZITAKOIA

Ondare baliabideen gunearen proiektua indartu nahi dute

Itzeko Portu etxean egin gogo duten proiektuaren berri eman zuten herriko ordezkariak Nafarroako Parlamentuan

TTIPI-TTAPA

Itzea auzoko Portu etxean Berako ondare baliabideen gunea egiteko proiektuaren berri ematera joan zen otsailaren 5ean herriko ordezkari-tza bat Nafarroako Parlamentura. Aitor Elexpuru alkatearekin batera, Auzolan taldeko hainbat kide joan ziren, hala nola Jon Abril, Helena Santesteban eta Isabel Ordoñez.

Iaz, proiektuak 100.000 euro lortu zituen Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentutik, eta bideragarritasun-plan bat egiteko, merkatu-azterketa bat egiteko eta irisgarritasun unibertsalaren plana egiteko erabili ziren. Portuko beheko

solairuan honako hauek egonen lirarteke: harrera, turismo-bulegoa, zentroaren kudeaketa-bulegoak eta liburutegi-kafe kontzeptuaren inguruko topagunea, bertako produktuekin, ostalaritzarekin eta abarrekin, «zentroan murgiltzera gonbidapena eginen duena, bisitatuko diren edukiak ezagutzera emanez».

Erakusketa-eremua 1. eta 2. solairuetan egonen litzateke, eta Julio Caro Barojak bildutako pieza batzuk hartuko litzateke, izaera etnografikokoak. Eremu horrek baserriaren bizitza, herriko pertsonaia ospetsuak, ondare arkitektonikoa eta industrialia, edo Be-

rak mugarekin eta kontrabandoarekin duen harremana ere bilduko litzateke.

Azkenik, hirugarren solairua esperimentalagoa izanen litzateke, laborategia, tailerrak eta bilerak egiteko gune komunak, talde-dinamikak eta eskola-tailerrak izanen litzateke, espazio praktikoa, moldagarri eta funtzio anitzekoa, ondarea balioesteko toki-erakundearen arteko lankidetzak-proiektuak sortu eta garatzeko.

2022an inauguratzeko asmoa

2020ko aurrekontuetan 65.000 euroko partida aurreikusia dago proiekturako, EHBilduren zuzenketaren bidez sartua, eta udalaren helburua da diru-sail hori 100.000 eurora ailegatzea, bertze talde politikoen babesarekin. Geroa Bai horren alde agertu zen lan-saioan eta bertze taldeek harrera ona izan zutela azpimarratu du alkateak.

Hain zuzen, Aitor Elexpuru parlamentuko talde guztien konpromisoa eta laguntza eskatu zuen Nafarroako Gobernuak, Udalak eta Auzolan taldeak osatutako lantaldeari jarraipena emateko eta fundazio bat sortzeko. Era berean, laguntza izendunak eta urte anitzekoak eskatu zituen: aurtun 100.000 eurokoa proiektua idazteko eta baldintza teknikoak prestatzeko; 2021ean, 850.000 eurokoa obra egiteko eta 2022an 400.000 eurokoa eduki, ekipamendu eta inauguraziorako.

Dantza garaikide tailerra eskainiko du Ana Irazustak

Otsailaren 29an eta martxoaren 28an, larunbatetan 11:00etatik 14:00etara, helduentzako dantza garaikide tailerra eskainiko du doan Ana Irazustak kultur etxean. Inprobisazioa eta koreografia landuko ditu. Argibide gehiago: adurlaranja@hotmail.com.

Saharari buruzko dokumentala hilaren 27an Beralandetan

Saharaztan elkarteak antolatuta, *Kafana* (Aski da) dokumentala eskainiko dute otsailaren 27an, datorren ortzegunean 19:30ean Beralandetan. Kataluniako Medicus Mundik produzitutako ikusentzuneak Saharako egoeraren berri ematen du.

Euskal Herriko armariari buruzko liburu-aurkezpena

Zazpiak Bat: Euskal Herriko armariaren historia liburu aurkeztuko du Andoni Esparza egileak otsailaren 28an, ortziralean 19:00etan Beralandetan. Heraldikan aditua da Andoni Esparza eta Euskal Herriko armaria aztertu du orain bere azken lanean.

LABE ZAR
Astelehenerdik ortziraleara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

MENDIKO
JATETXEA
Sagardotegia
Ibardin-BERA | T. 00 34 948 63 03 02
www.mendikoibardin.com
Karta ere badugu!

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Komentuko gela umeeek erabiltzeko irekiko da

Martxoaren 1etik maiatzaren 31ra irekiko ditu ateak eta arduradun bat kontratatzeko lehiaketa egingen dute

AITOR AROTZENA

Komentuko gela umeeek erabiltzeko ireki nahi du Udalak. Horretaz arduratzeko, arratsaldez ireki eta itxitzeko, gelaren garbiketa egiteko, bertan arauak errespetarazteko eta aisialdiko ekintzak antolatze-ko pertsona bat kontratatze-ko helburuarekin lehiaketa ere ireki du. Kontratuak hiru hilabete, martxoaren 1etik maiatzaren 31 arte, iraunen du. Tarte horretan, astelehenetik ortziralerara 16:00etatik 20:30era komentuko gela ireki eta itxi, haur taldeak dinamizatu eta eman dakizkiokoen bertzelako lanak egin beharko ditu.

Atezain eta begirale lanak egiteko hautagaiek otsailaren 14ra bitarteko epea zuten curriculumak aurkezteko. Onartu eta baztertuen behin-behinek zerranda otsailaren 17an argitaratu da, udalaren webgunean (www.lesaka.eus). Ondotik euskara proba otsailaren 25ean, 10:00etan eta proba praktikoa hilaren 27an 10:00etan egingen dituzte eta merezimenduen (formakuntza eta lan esperientzia) balo-



Arratsaldez irekiko dute komentua.

razioa ere kontuan hartuko da. Emaizta orokorrak otsailaren 28an emanen dira argitarara udalaren webgunean.

Elkarteen dirulaguntzak

Bertze aldetik, herriko entitate soziokulturalei zuzendutako 2020rako dirulaguntzak eskatzeko epea irekia da. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 21eko 13:00etan bukatuko da. Udalak ematen dituen dirulaguntzek kultura, musika, kirol elkarte eta irabazi asmorik gabeko eragileek egiten duten lanaren alde egitea dute helburu. Dirulaguntzak hiru multzotan banatuko dira: herriko ohiturekin lotutako jarduerak, funtzionamendu-gastuak eta bertze jarduerak batzuk.

Beti Gazteko dantza lerro taldearen saioa larunbatean

Inauterietako larunbatean Beti Gazteko dantza lerro taldeak emanaldia eskainiko du plazan. Ortziralean, berriz, haurrendako tailerrak eta txokolatada izanen dira. Inauterietako ohiko bertze ekitaldiaren berri TTPI-TTAPAREN 751. zenbakian irakur dezakezue.

Harriondoan 'Ernest eta Cellestine' filma martxoaren 1ean

Tantirumairu ikastolako eta Irain eskolako Guraso Elkarteek, Udalaren laguntzarekin antolatuta, martxoaren 1ean, igandean 16:30ean *Ernest eta Cellestine* filma eskainiko dute Harriondoan. Sarrera 2 euro gostako da eta merienda ere eskainiko dute.



AITOR AROTZENA

Lehen auzo-bilera jendetsuak

Herrigunean bizi diren bizilagunekin otsailaren 7tik 9ra egindako auzo-bileren balorazio «hagitz positiboa» egin du udalak, «herritarren kezka identifikatu ditugu eta ahal dela soluzioa ematen saiatuko gara». Udaberri aldera, baserri auzoetako bizilagunekin biltzeko asmoa ere agertu du udalak.



UTZITAKO ARGAZKIA

II. Mendi Lasterketarako prestatzen

Martxoaren 8an egingen dute Lesakako II. Mendi Lasterketa. Ibilbidea ezagutzeko Beti Gazte Lasterka Taldeak antolatutako irteeran 40 bak korrikalari bildu ziren otsailaren 2an. Izen-ematea internet bidez bakarrik egin daiteke martxoaren 3ra bitarte www.herrikrosa.eus webgunearen bidez.



USOA
Nekazari kooperatiba

ORAIN GASOLINA ERE
T. 948 635 214 ETXALAR

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

DenokBat
Hemen erabili

kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

Inauterietan murgiltzeko prest dira herritarrak

Ortzegun Gizenarekin abiatu eta lau egunez hainbat ekitaldi izanen dira gozatzeko

IRUNE ELIZAGOIEN

Ortzegun Gizenarekin, otsailaren 20an, hasiko dira inauteriak: Goizean haurrak etxez etxe eskean ibiliko dira eta arratsaldean antzerkiak eskainiko dituzte. Aurten, gainera, Arantzako eskolako ikasleak etorriko dira. 14:30ean plazan elkartu eta denak elkarrekin bertsoa kantatuko dute. Ondotik antzerki emanaldiak izanen dira eskolako atarian, Haritzpeko belardian, Domekeneko atean, Maixterrenoko atarian eta plazan. Trikitilariak elkarrekin dantzaldia eta gu-

raso elkarteak eskainitako merienda izanen dituzte.

Igandean, Zaldun inauterietan, kinto bestak ospatuko dituzte.

Astelehenean, *inaute-inaute* egunean, gosaria eginen dute gazteek La Basque ostatuan eta ondotik baserri baserri eskean ibiliko dira.

Mozorro eta karrozen eguna izanen da asteartea. Eguerdian karroza eta mozorroak ibiliko dira. Herriko Ostatuan eta Larraburuan bazkariak izanen dira. 18:00etan sokatira proba izanen da frontoian.

Altxata elkartearen batzar orokorra otsailaren 29an

Otsailaren 29an, 19:30ean kultur etxean izanen da Altxata elkartearen urteko batzarra. Iazko kontuak errepasatu, 2020 aurrekontua onartu, gasna feria, San Juan sua, Usategietako igandea, dantzak, pilota, Herri Haitada eta junta berria izanen dira landuko diren gaiak.

Sagardotegian bazkaria prest dute martxoaren 7an

Herriko gazteek antolatuta, Usurbilgo Arratzain sagardotegira bazkaltzera joateko aukera izanen da martxoaren 7an. Otsailaren 23a baino lehen izena eman eta 20 euro ordaindu Herriko Ostatuan. Autobusa 13:00etan abiatuko da eta 04:00etan itzuliko da.



ARANTXA MIKELESTORENA

Arkupeak elkarte herriko kideen besta

Arkupeakeko kideek otsailaren 9an egin zuten urteko besta. Meza ondotik 40 lagunek bazkalduta zuten Herriko Ostatuan. Musean, Benantxio Elizagoien eta Jose Antonio Elizalde izan ziren txapeldun, bigarren Jose Mari Maia eta Blanca Perez eta hirugarren Jesus Arribillaga eta Txomin Aranburu.



IBON ERRAZU

Etxalarko IX. trikiti afaria Larraburuan

Urteroko ohiturari jarraituz, Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat trikitilari elkartzuz afaria egin zuten bederatzigarren aldiz Etxalarko otsailaren 1ean, giro ederrean. Aitzinetik poteoan herria alaitu zuten eta afalondoan, berriz, goizalderarte iraun zuten trikiti doinuek Larraburuan.

Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak
Haurdientzako animazioa

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu, **animatzaile** baten eskutik. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.



ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

KONTSULTATU GURE ESKAINTZAK



Jose Luis Sirera da Igantziko Biltokiko presidente berria

Elizateko lanak 2022ko udazkena baino lehen ez direnez bukatuko, ordura arte ez dute egoitza lekuz aldatuko

TTIPI-TTAPA

50 lagun bildu zituen Biltoki Elkarteko juntak egindako urteko batzarrerako deialdiak. Urtean zehar elkarteak antolatu dituen ekitaldei egin zitzaion errepasoa hasieran, bazkide berriak eta elkartearen utzi dutenak aipatu ziren ondorengatik eta diru kontuei buruzko laburpena eztabaidatu zen hirugarren puntuan. Azken puntu honetan, ekitaldiak diruz laguntzeko Herriko Etxearekin izandako hartuemanetaz informatu zuen juntak. Proposatutako barne-araudiko aldaketa ere onartu zuen batzarrak eta egoitzaren leku aldaketaz informatu zuen segidan. 2022ko udazkena izanen omen da, Herriko Etxearen erranetan, Elizateko lanak akautzen direnerako. Horixe da, beraz, elkarteak eskuarrean darabilen epea. Azkenik, juntako partaide berriak aukeratu zituzten: Jose Luis Sirera izanen da lehendakaria Iñaki Porturen ordean, Iñigo Migelenak eginen ditu diruzain lanak Idoia Bereauren lekua hartuta eta Xabat Matxikotek



Jose Luis Sirera presidente berria.

arduratuko da idazkari lanetaz, Iker Gonzalezek bere bi urteak bete ondorengatik. Bokalak Korpus Txoperena, Imanol Retegi eta Aitor Txoperena izan dira, Rexu Irigoien, Lander Sein eta Luis Almandozi lekua hartuta.

Udal idazkariarekin bueltaka
Idazkari berria dugu joan den asteaz geroztik udal bulegoetan. Eguzkiñe Aiesa da bere izena eta hirugarrena izanen da azken urte honetan Arantza eta Igantziko Herriko Etxeetan. Hagitz kezkatua dauka udalaga honek, erabakiak eta tramiteak aunitz mantsotu direlako azken hilabeteetan. Pazientzia pixka bat izan behar du gauzak bere onera etortzen diren bitartean.



OSKAR TXOPERENA

Mahai jokoen azken ekitaldia Biltokian

Aurten banakako sailkapena egin da mus eta partxis txapelketetan. Jardunaldi bakoitzean banatu zaizkio puntuak aritu direnei, banaka, eta puntu gehien piltatu dituztenak hauek izan dira: hurrenez-hurren Jokin Mitxeo, Maiana-Lander Sein eta Julen Taberna partxisean, eta Mikel Urtxegi, Ander Gonzalez eta Xabat Matxikote musean. Jose Luis Sirera presidente berriak parte hartu zuen sari-banaketan. Afari zoragarriarekin eman zioten akabaila txapelketari.



OSKAR TXOPERENA

Moldatze lanak Miauriko errekan

Aitzin horretan erortza izan zen Miauriko erreka inguruan, San Juan Xarrera doaien bidea errepidera ailegatu baino lehenxeago. Mendi zati bat errepidera erortzeaz gain, galtzadaren zati haundi samarraren harriak joan ziren beheiti. Inguru hori egonkortzeko asmoarekin harri mukuru bat paratu dute azpiko aldetik eta, bidenabar, bidea txukundu dute errepiderraino. Galtzada gordea dago azken zati horretan, urtetan bere gainean piltatutako lurraengatik.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL



Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Sinadura bilketa abiatu du Manzano-Altuna familiak

N-121-A errepideko kamioien trafikoa erdira murriztu dezaten babesa eskatu dute

NEREA ALZURI

Mikel Manzano Altunaren familiak sinadura bilketa abian jarri du *Osoigo.com* plataforma digitalaren bitartez.

Epe motzean egin duten eskaera argia da: N-121-A errepidean kamioien trafikoa erdira murriztea nahi dute eta hori adierazten duten kartelak aktibatzea eskatu dute, tuneletan obrak egin ziren garaian bezala, kamioien matrikularen arabera txandakako pasabidea ezarri. Nafarroako herriari presioa egiteko deia egin diote, trafikoa murrizteko behar

diren neurriak har daitezen eta istripuak gertatzeko arriskua gutxitu dadin.

Heriotza errepidean

Berri ilunekin hasi genuen urtea. Bordaxuriko Mikel Manzano Altuna eta Xabier Taberna igantziarra zendu ziren errepideko ezbehar batean, Olaguen. Hilabete honetan ere berri txarra N-121-Atik jaso dugu. Otsailaren 6an, Xuanteko Luis Mari Andueza Agara *Pottune* hil zen. Lerro hauen bidez, doluminak eman nahi dizkiegu familiari eta lagunei.

Trikitixa jaialdia apirilaren 18an izanen da

Aurten bosgarren edizioa beteko duen trikitixa jaialdiak badu eguna: apirilaren 18an izanen da. Dagoeneko xehetasunak lotzen hasia da Udaleko Kultura Batzordea. Xehetasun gehiago aitzinerago.




Mozorroak eta bizkarrekoak altxatu ditugu 2021eko inauteriak etorri arte

NEREA ALZURI

Eguraldia lagun, egitaraua bete-betea izan zen inauterietako hiru egunetan. 25 bat Mozorro Zuri bildu ziren eta ekitaldi guztietan lagun izan ziren. Ortzegun eta ortziralean baserrietan eta herriko etxetan ibili ziren Andoni eta Beñat akordeoilariek girotuta. Eskolako lagunek ere, besta izan zuten ortzegunean, Mozorroen bisita goizean eta arratsaldean, herri kirol saio ikusgarria eskaini zuten. Ortziralean eskolako ttikienak koplak kantari ibili ziren herrian eta kokko-

rrenak baserrietan ibili ziren ortziralean eta larunbatean.

Ortziralean, emakumeen afaria, bertso afaria eta Beñat eta Fernandorekin dantzaldia jendetsuak izan ziren. Larunbat arratsaldean, berriz, mozorro desfile koloretsua izan zen, eta Mozorro Beltzak ere bisitan izan ziren. Aizkora erakustaldian frontoia tanpetaraino bete zen eta zozketetan, sarituak Oskitz Madariaga, Saioa Ordoki eta Jose Ramon Amoros izan ziren. Besta borobiltzeko goizaldera arte dantzaldia izan zen Gorapean.



Giro ederrean joan dira inauteriak. N. ALMANDOZ / S. ITURRIA / S. TELLETXEA / G. PIKABEA




aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net




Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Sunbillako eskolako laugarren mailako ikasleak eta irakaslea Paula Sanzberro eguraldi-emakumearekin. **ESKOLAK UTZIA**

Paula Sanzberro eguraldi-emakumea bisitan ikasleak

1976an Benito bere aita hasi zen tenperatura eta prezipitazioak neurtzen eta ondotik berak hartu zion lekukoa

MAIDER PETRIRENA

Sunbillako eskolako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek Paula Sanzberro Iriarteri bisita egin diote. Izan ere, Eguraldia eta klima lantzen ari dira eta Paula Sanzberro tenperatura eta prezipitazioa

neurtzeaz arduratzen denez, gustu handiz erakutsi die zein den berak egiten duen eguneroko lana.

Ikasleei kontatu dienez, 1976. urtean hasi zen Paularen aita, Benito Sanzberro, neurketa hauek erregistratzen, eta on-

doren, berak hartu zuen neurketen erreleboa. Zein datu hartzen dituen aipatu du; eguneko tenperatura altuena, baxuena, hezetasuna, momentuan dagoen tenperatura eta prezipitazio kantitateak erregistratzen ditu.

Hilabete baten erregistroa osatzen duenean (egunero egiten du erregistroa), Iruñera bidaltzen ditu datuak. Hauekin, zonaldeko eta Nafarroako banaz bertzeko datuak ateratzen dituzte.

Sunbillako eskolatik adierazi dutenez, «adi eta gustora egon ziren ikasleak Paularen azalpenak entzuten. Mila esker Paula!».

Arkupeak elkarteko bazkideen bazkaria martxoaren 8an

Sunbillako Arkupeak elkarteko bazkideek martxoaren 8an bazkaria izanen dute. Apuntatu nahi duenak Juan Antonio Ibarra edo Jesus Mari Jorajuriarekin harremanetan jarri behar du.

Nafarroako judo txapelketan hasia da Jon Ibarra

Otsailaren 1ean abiatu zen Nafarroako infantil eta kadete mailako judo txapelketa Mendillorri. Infantil mailan Jon Ibarra Olaetxea sunbildarrak parte hartu zuen. Hurrengo saioa larunbatean du.

Herriko abesbatzak bigarren kontzertua larunbatean

Lehenbizikoaren arrakastaren ondotik Sunbillako abesbatzak bere bigarren kontzertua eskainiko du otsailaren 22an, larunbatean, 20:00etan, elizan.



UDALAK ETA MARI JOSE MITXELENAK UTZITAKO ARGAZKIAK

Ehun urte bete ditu Candida Mitxelenak

Candida Mitxelena Jorajuriak 100 urte bete eta ohorezko alkate izendatu dute. Amets Inda alkateak Mari Jose ilbari makila, zapia eta oroigarria eman zizkion, Candidak ezin izan zuelako bertan egon. 1920ko urtarrilaren 13an sortu zen Izaldekobordan eta 13 urte zituela Galtxenbordara joan zen.



BIDAL IBARRA

Mendigoizale taldea Beriainen

Sunbillako mendigoizale talde batek otsailaren 9an Beriainera (San Donato) irteera egin zuen. Eguraldi txarra izan zuten, laino eta haize handiarekin. Hurrengo irteera martxoko lehen asteburuan egingen dute, mendiz. Ani mendira, berriz, martxoaren 14-15ko asteburuan joanen dira.

Afrikako soinu eta doinuen erritmoan inauteriak eskolan

Ortzirale goizean desfilea egingen dute, bazkaria lehen aldiz eta arratsaldean ez da klaserik izanen

MARGA ERDOZAIN

Aurten San Miguel ikastetxean inauteriak modu berezian ospatuko dituzte. Ortziralean, otsailaren 21ean, dute hitzordua.

Goizean Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek desfilean parte hartuko dute. Desfilea koloretsua izanen da, Afrika aukeratu baitute aurteko gaitzat.

Arratsaldean klaserik ez

Berrikuntza gisa, aipatu behar da aurten arratsaldean ez dela klaserik izanen. Beraz,

13:00etan autobusek ikasleak etxetara eramanez dituzte.

Bazkaria eta musika

Hori bai, bestarekin jarraitu nahi duenak Erreka guraso elkarteak antolatutako bazkari autogestionatuan elkartzeko aukera izanen du. Intersatuak 699 04 13 08 telefonora deitzen ahal dute. Bazkaldu ondotik, musika izanen da eta arratsaldean txokolate beroa eskainiko dute.

Egun horretako klasea asteazken honetan, otsailaren 19an, berreskuratzekoa zuten.



TTIPI-TTAPA

Manifestazio jendetsua gure karrketan

Mila lagunetik goiti elkartu ziren lan, pensio eta bizitza duina aldarrikatuz urtarrilaren 30ean gure herriko karrketan barna egindako manifestazioan. Gasolindegi parean hasi zen manifestazioa eta Santa Luzia plazan egindako ekitaldi batekin borobildu zuten..

Euskaraldia antolatzeko batzorde eragilea martxan

Euskaraldia antolatzeko Malerrekako batzordea osatu dute. Azaroaren 20tik abendura 4ra bitarte izanen da Euskaraldia- bigarren edizioa, herritarren eta entitateen ahozko hizkuntza praktika berriak sustatzeko ariketa soziala izanen dena, eta oraingoan ere

Belarriprest eta Ahobizi dinamikan oinarrituko dena. Aurteko erroka ariguneak sortzea eta bultzatzea izanen da. Dagoeneko Malerrekak ekimen honetan izena eman du eta 2020rako plangintza eta entitateen mapeoa egin eta lehen-tasunak bildu dira.



ION IRAZOKI

Xabier Sarasolarekin tailer arrakastatsua

Mendi Abesbatzaren 25. urteurreneko ospakizunen artean, otsaileko bigarren asteburuan Beasaingo Xabier Sarasola piano-jotzaile, biolin-jotzaile, zuzendari eta konpositorearekin tailerra egin zuten Mendi Abesbatzako kide nagusiek eta Mendi Tiki abesbatzakoek. Aski kontent gelditu ziren guztiak.

Xabierrera joateko autobusa martxoaren 14an

Errekak antolatuta, martxoaren 14an, Xabierrera joateko autobusa izanen dute. Aurten ere Beratik 04:40an eta Doneztebetik 05:00etan abiatuko da. Iruñean geldituko da, handik Xabierrera dauden 42 kilometroko ibilbidea oinez egiteko. Ibilbidea akituta, etxera itzultzeko autobusak Xabierran hartuko ditu ibiltariak. Titi estatuan apuntatu behar da edo 948 45 02 71 telefonora deituz. Joan nahi dutenek 20 euro ordaindu beharko dituzte (bazkide direnek bortz euro gutxiago).

Bi film pantailaratuko dituzte igandean

Inauterietako biharamuna pasatzeko aukera ederra eskaini dute Erreka guraso elkarteak eta Udalak. Izan ere, igandean, otsailaren 23an, bi film pantailaratuko dituzte. 16:30ean hasiko dira emanaldiak eta *Paperezko hegazkinak* izanen da lehendabizikoa (sarrera euro baten truke). Ondotik 18:30ean *La familia Adams* ikusi ahal izanen da. Azken honetarako sarrerak bi euro ordaindu beharko dira. Ikusleak, elkarbizitza arauak errespetatzen ez badituzte, kanporatuak izan daitezke.

Bortz ikasle hiru urteko gelan heldu den ikasturtean

Guraso elkarteak kamisetak egin ditu eta hamar eurotan salgai daude

ARKAITZ MINDEGIA

Ikasturteak aitzinera egin bidenabar, Pulunpa eskolakoak hurrengo ikasturtera begira hasiak dira. Eskola erakitzeke obrak ez ezik, heldu den urtean hiru urteko ikasleen gelan hasiko diren bortz ikasleetan dute begirada.

Oihana Mindegia Beti Gazte sokatira taldearekin Irlandan

Lesakako Beti Gazte sokatira taldekoekin Irlandan dago Oihana Mindegia, mundiala jokatzen. Otsailaren 18an joan ziren. Biharamunean pisuak hartu ondotik, 20tik aitzinera txapelketeta hasiko dute. Eutsi gogor neska-mutilak!



Kamisetak salgai

Guraso elkarteak kideak ere ez daude geldirik. Eguberrien bueltan egin zuten bestaz gerotzik, egutegiak eta kamisetak ere egin eta salgai paratu dituzte. Hainbat kolore daude aukeran eta hamar eurotan eros daitezke.

Bertsonautak taldea finalerdietara sailkatua

Bertsonauta taldea finalerdietara sailkatu da dagoeneko, Elgorriagan (etxeko saioa) eta Barañainen jokatu zituzten saioak irabazi ondotik.

Finalerdiak Anizen eta Goizuetan jokatu dituzte. Otsailaren 29an, larunbatean, Anizen izanen dira eta martxoaren 14an, berriz, Goizuetan. Bien bitartean, lan txukuna egiteko eta entzuleek saioaz gozatzeko prestatzen ari dira, bai Alazne Untxalo eta Iker eta Egoitz Gorosterrazu herritarrak baita beraien lan taldekideak ere.



A. MINDEGIA

Kontuen Eguna borobila

Otsailaren 1ean inauteriak borobiltzeko Kontuen Eguna izan zuten herrian. Zorrak kitatzeko hitzorduaren bueltan, egun osoko egitarauaz gozatu zuten. Goiz erdian, herriko plazan, dantzari gaztetxoan emanaldia eta herritarren arteko herrikirol erronka izan zen ikusgai. Bi ikuskizunek ikusmira handia eragin zuten. Ikusleek txalo artean eskertu zituzten gaztetxo eta gazteek eskainitako emanaldiak. Eguerdian, ohi bezala, bertso bazkarian bildu ziren. Soto eta Zubeldiak erronka bikoitza izan zuten. Izan ere, bertsoen doinu eta errime joareena gehitu zitzairen. Mahaiaren bueltan bildu ziren 170 lagunek giroari segida emateko aukera izan zuten. Izan ere, arratsaldean, Hauspolariek taldearen eskutik, dantzaldia izan zuten.



KTK LIFT SL

IGOGAILUAK

IGOGAILUAK | JASOTZAILEAK
proiektu, erreformak, instalazio
eta mantentze lanak

Amezti zeharbidea 5 behe D. 31740 Donztebe
znorte@ktklift.com · www.ktklift.com

T. 679 996 055



ORBELA
SENDERSMOA ATERRETEMA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com



744 484 361
ttipi-ttapa



Pili Telletxeak eta Leire Mariezkurrenak lortu zuten finalera sailkatzea.

Bi herritar hilaren 29an Nafarroako mus finalean

Leire Mariezkurrena eta Pili Telletxea otsailaren 29an Iruñean jokatuko den Nafarroako finalean izanen dira

FERMIN ETXEKOLONEA

Sei bikotek parte hartu zuten herrian jokatu zen Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketan. Leire Mariezkurrena eta Pili Telletxea izan ziren irabazle; Nagore Diaz eta Beñat Etxekolonea, berriz, txapeldunorde.

Irabazleak otsailaren 29an Iruñeko Arrano elkartearen jokatuko den Nafarroako finalean izanen dira. 08:30ean hasiko da herrialdeko txapelketa eta 160 bikote lehiatuko dira martxoaren 14an Araban jokatzea duten txapelketarako txartela eskuratzeko. Horie-

tatik 32 izanen dira aurrera eginen dutenak.

Bigarren urtez segidan

Telletxea eta Mariezkurrenarentzat ez da lehendabiziko aldia izanen, joan den urtean ere sailkatzea lortu baitzuten: «esperientzia polita izan zen. Txapelketa izanagatik, jendea laguntzeko prest egon zen, herrian bezala aritun ginen...». Aurten helburu berarekin joanen dira: «gustura egotea espero dugu. Aurrera eginez gero ongi, bestela, egun ederra pasa eta hartu-eman horretaz gozatuko dugu».



La Chula Potraren eta Ozpinduk taldearen kontzertua izanen dute. JAVIER ESCORZO

Absurd Fest antzerki eta musika jaialdia otsailaren 29an Herriko Ostatuan

FERMIN ETXEKOLONEA

Inauteriak akitu badira ere, moztarro festak segida izanen du otsailean. Izan ere, Herriko Ostatuan festa antolatu dute hondarreko larunbaterako, hilaren 29rako. 18:00 aldera hasiko da mugimendua *Marcelino y la lampara aske-rosa* antzerki emanaldiarekin.

Antzezleei musikariek emanen diete segida. Kontzertuak 21:30ean hasiko dira eta Ozpinduk taldeak eta *La Chula Potrak* izanen dute ostatua girotzeko ardura. Gaua luzatu nahi dutenek izanen dute zertaz gozatua. Kontzertuen ondotik, festa borobiltzeko, mikro irekia izanen dute.

Udalak herritarrei eskaintzeko 25 egur lote markatu ditu

Udalak herritarrentzako egur loteak markatu dituela adierazi du. Guztira 25 dira markatu dituztenak. Lerro hauek idazterakoan eskaera epeen berririk ez gauen arren, sarri jakinaraziko zituztela iragarria zuten. Interesa duena, beraz, ez dadila despista!

Eskerrak sukaldari, zerbitzari eta musikariari

Herritarrek «arrot kontent» daude inauterietan izan duten giroarekin. Hortaz, egunotan lanean aritu zirenei eskerrak eman nahi izan dizkiete: Patxiku eta Maria Mitxelenari, Arantxita Mutuberriari, Mari Joxe Indabereri, Aurkene Peurrenari eta Modestori.

caser
residencial

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

AMA
KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTAKUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Narbarteko inauteriak bete-betean

Asteazken eta ortzegunean haurrak izanen dira protagonista eta ortzirale eta larunbatean gazte eta helduak

TTIPI-TTAPA NARBARTE

Narbarteko haurrak izanen dira asteazken arratsalde honetan, inauteriei hasiera ematen dietenak, mozorroak soinean baserriz baserri eskean ibiliko baitira gurasoen laguntzarekin. Ortzegunean, berriz, eskolatik kalejira egingen dute. Mozorroak jantzita herrian barna ibiliko dira. Eguerdian bazkaltzeko bilduko dira eta arratsaldean jokoak izanen dituzte, tartean oilar jokoa. Ondotik, txokolatea eskainiko dute biltzen diren guztiendako.

Ortzirale ilunabarrean gazteek hurrei hartuko diete lekukoa. 20:30ean Herriko Ostatuan bilduko dira afaltzeko. Mozorroturik joateko deia egin dute, hartara, afalondoa egingen den mozorro lehiaketan parte hartzeko aukera



Joan den urteko inauterietan.

izanen baitute. Bestan segitu nahi duenak aukera ederra izanen du horretarako, 00:00etatik 05:00etara Txingudi DJa gonbidatu baitute.

Larunbatean, berriz, bezperako bestondoa pasatzeko denbora aunitz gabe, gazteak 11:00etan elkartuko dira, aldi honetan ere mozorrotuta. Indarrak hartzeko Herriko Ostatuan gosalduta ondotik, 12:00etan plazatik abiatuta etxex etxe ibiliko dira.



JAIONE ARIZTEGI

Urroztik Oizera Malerreka Kantuz

Urteko hirugarren geldialdia Oizen egingen du Malerreka Kantuz egitasmoak, martxoaren 7an. Ohi bezala, 12:00etan plazatik abiatuta herria kantuz alaituko dute. Otsailekoa, berriz, Urrozen egin zuten. Argazkian ageri den bezala, musika lagun, karrikak kantuz alaitu zituzten bildutakoek.

Kaltetutakoekin bildu nahi duela erantzun die Gobernuak gurasoei

TTIPI-TTAPA

Malerrekako eta Bertizaranako hurrei dagokien pediatriaren lanpostua betetzeko «zailtasunak» dituztela eta kaltetutakoekin bildu nahi duela erantzun die Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak zerbitzua bermatzeko eskatuz, 500 bat sinadurekin batera, Malerrekako eta Bertizaranako gurasoek eginiko idatziari.

Egoeraren berri badutela diote Osasun Departamentutik, eta Nafarroako eta estatuko bertze tokietan arazo bera

dutela gaineratu dute, «personal eskasia» arrazoituz.

Doneztebeko Osasun Zentroan mediku familiariek artatzen dituzte haurrak eta beharrendak arabera, arratsalde batzuetan, inguruko pediatria hurbildu izan da. Gurasoen idatzian, ordea, «soluzio hori nahikoa ez dela edo informazioa falta dela» ondorioztatu du Gobernuak, eta hala, kaltetutakoekin bildu nahi du. Horrez gain, Doneztebeko Osasun Zentroa bisita egingen dutela azaldu du eta eskualdearekin «konpromiso argia» berretsi du.



Argazkiko kuadrillak giro ederrean bazkaldu zuen otsailaren 2an. JAIONE ZABALO

Jubilatuaren festaren ondotik inauteriei begira daude Ezkurran

JAIONE ZABALO EZKURRA

Eguraldi ederra lagun, Ezkurran jubilatuen bazkaltzeko bildu ziren joan den otsailaren 2an. Arkupeak elkarteko kide ziren hildako herritarren omezez meza entzun ondotik, Barranka jatetxean bazkaldu zuten. Giro eta umore ona izan zuten nagusi.

Inauteriak martxoan

Herritarren hurrengo hitzordua martxoaren 7an izanen da, egun horretan inauteriak ospatuko baitituzte. 10:00etan, mozorrotuta, frontoian bilduko dira eta etxex etxeko eskea-

ri ekinen diote Oihana eta Irati trikitilarietara batera. 17:00etan batzuk baserriak alaitzen dituzten bitartean, besteak ludotekan bilduko dira, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna gogoan, Haizea Loirarekin ekitaldia izanen baita.

Gauez, festa giroan segituz, Barranka jatetxean egingen dute berriz hitzordua, triki-bertso afaria antolatu baitute Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia bertsolariekin eta Oihana eta Irati trikitilarietara. Horrela borobilduko dituzte aurtengo inauteriak ezkurrarrek.

NaturClima proiektu europarraren buru da Nafarroa

Urbasa-Andia eta Bertiz erreferentzia izanen dira klima aldaketaren aurrean eginen diren egokitzapen-ekintzetan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren bidez, Interreg POCTEFA NaturClima Europako proiektuaren buru da, klima-aldaketaren aurrean naturagune babestuen kalteberatasuna lantzeko mugaz gaindiko ekimenean.

Proiektuaren arduradunek abiatzeko bilera egin zuten otsailaren 5ean Iruñean, eta proiektuko borts kidek hartu zuten parte: Nafarroako GAN eta Nasuvinsa enpresa publikoak eta Parc National des

Pyrenées, CPIE Bigorre-Pyrenées eta Miarritzeko Itsasoaren Zentroa erakundeak.

NaturClimaren garapenak 30 hilabeteko egutegia du 2022ko ekainera arte, eta 2,1 milioi euroko aurrekontua du; horietatik %65 Eskualde Garapenerako Europako Funtsek (FEDER) kofinantzatzen dute.

POCTEFA 2014-2020 ekimena, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren barrenean dago, muga inguruko lurraldearen garapen iraunkorra sustatzeko hiru herrialdeen artean sorturiko



Proiektua abiatzeko bilera egin zuten otsailaren 5ean Iruñean. UTZITAKO ARGAZKIA

lurralde-lankidetzako ekimen europarra. NaturClima proiektuaren helburuak, Pirinioen bi aldeetan dauden naturgune babestuek, klima-aldaketaren aurrean duten urrortasun handian oinarritzen dira. Lehentasun horrekin, sei erakunde bazkideek, Nafarroako Urbasako eta Bertiz Jaurerriko parke naturalak, Pirinioetako Parke Nazionalea eta itsasertzeko gune atlantikoak hautatu dituzte, hiru eskual-

deetako ondare naturalaren eta kulturalaren adierazgarri diren, eta kudeaketa, gobernantza eta zerbitzuak egoera berrira egokitzea eskatzen duten gune babestu gisa.

Proiektuaren helburuen artean, NaturClimak naturguneak kudeatzeko eta gobernatzeko lankidetzak areagotzea nabarmen du, klima-aldaketara egokitzea babesteko, sustatzeko eta hobetzeko, jardunbide onak identifikatzeko.



PROMOCIONES MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



AUKERA BIKAINA Sunbillan!

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

BERTIZARANA/MALERREKA

Otsailaren 28an eta 29an inauteriak Legasan

Ortzirale arratsaldean eskolako hurrek kalejira egingen dute eta larunbat eguerdian mozorroen kalejira

TTIPI-TTAPA LEGASA

Gainerako herrietako inauterietan gozatu ondotik, orain etxean izanen dute horretarako aukera legasarrak, hilabete hondarreko bi egunetan mozorro bestan murgilduak ibiliko baitira.

Otsailak 28, ortziralea

Neska-mutikoak izanen dira inauteriei hasiera emanen dietenak. 15:00etan eskolako hurrek kalejira egingen dute herrian barna eta ondotik, indarrak hartzeko, txokolate beroa hartzeko aukera izanen

dute. 17:00etan etxez etxe puska biltzen ibiliko dira eta gauean, herritarrak mahaiaren bueltan bilduko dira afaltzeko. Herriko elkarteetan egingen dute afaria.

Otsailak 28, larunbata

Mozorroak 12:00etan elkartuko dira eta herrian barna kalejira egingen dute. 14:00etan, frontoian bazkaltzeko elkartuko dira eta ondotik musika izanen da. Inauteriak borobiltzeko gauetz afaria eta mozorro dantza egingen dute gorputzak aguantatzen duen arte.



JAIONE ARIZTEGI

Giro ederra Urrozko inauterietan

Aurten ere inauteri ofizialak baino astebete lehenago ospatu dituzte inauteriak Urrozen. Ortziralean, hilak 7, Herriko Ostatuan afaldu zuten. Larunbatean, haurrak etxez etxe eta gazteak baserriz baseri ibili ziren musikariak lagun. Inauteriak borobiltzeko herri afaria egin zuten Herriko Ostatuan.



Herriko gazteboak joaldunez jantzita duela urte batzuetako inauterietan. ARTXIBOA

Otsailaren 29an inauteriak ospatuko dituzte Saldiasen

TTIPI-TTAPA SALDIAS

Hilabete hondarreko egunetan ospatuko dituzte saldias-tarrek inauteriak, hilaren 29an.

09:30ean elkartu eta base-rietarako bidea hartuko dute Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariekin eta Oihana eta Irati trikitilarekin. Goiza harat-honat pasatu ondotik,

14:30 aldera bazkaltzeko bilduko dira Herriko Ostatuan. Ondotik, herrian barrena ibiliko dira eta gauean, ostatuan afaria izanen da.

Bazkarira edo afarira joateko otsailaren 26a baino lehen txartelak hartu beharko dira ostatuan. Haurrentzako menua ere eskainiko dute.



AMAIA ODRIOZOLA

Umore ona Donamariako inauterietan

Mozorroak soinean, Donamariako haur, gazte eta helduek ederki gozatu zuten otsailaren 7an inauterietan. Gazteak Agerralde akordeoilariarekin ibili ziren eskean eta hurrek ere auzoz auzoko itzulia egin zuten, gurasoak lagun. Ilunabarrean Artzen elkartu ziren haur eta gazteak.

Kontroladore lanetan aritzeko langile bat behar dute Aslanan

Baztan edo Malerreka aldean bizi direnendako egin dute lan eskaintza eta curriculumak otsailaren 20rako bidali behar dira Nafarroako Ardi Latxaren Elkartera



INTIAko abeltzaintza ikastaroan eskualdeko gazteak hasi dira. INTIA

TTIPI-TTAPA

Aslana Nafarroako ardi latxaren abeltzainen elkarreak nekazaritzako formakuntza duen teknikari aditua nahi du batez ere Baztan eta Malerreka aldean lanean aritzeko. Lau hilabete inguruko kontratua eskainiko dute eta interesatuek otsailaren 20a baino lehen bidali beharko dute curriculumak.

Nekazaritzako goi mailako zikloa edo prestakuntza profesionala izatea eskatu dute, baita euskaraz eta gaztelaniaz jakitea eta ofimatikako ezagutza izatea ere. Gidatzeko baimena eta autoa izatea ere ezinbertzekoa izanen da eta esnetako ardien sektorea ezagutzea baloratuko dutela jakinarazi dute. Interesatuek Baztanen edo Malerrekan izan behar dute bizilekua.

Esnearen kontrola egiteaz gain, ardien identifikazio indibiduala eta intseminazio artifiziala egin beharko ditu. Lau hilabete inguruko kontratu mota eskaini dute, lanaldi osoan eta berehala hasteko. Interesatuek mlasarte@aslana.centroiza.com helbidera bidali beharko dute curriculumak, otsailaren 20a baino lehen.

INTIA ikastaroak

Bertze aldetik, otsailean hasi dira gazteak nekazaritza eta abeltzaintza munduan sartzeko INTIA elkarre publikoak eskainitako bi ikastaroak. Maiatzaren bukaera arte irauten dute. Abeltzaintzakoan eskualdeko gazteak ere hasiak dira.

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!

DESKONTUAK
MALERREKA
TTIPI TXARTELA

EZ
%10 DESKONTUA
produktuetan
Intzakardi, z/g | DONEZTEBE
T. 948 45 03 64

JUAN J. PICABEA
%10 DESKONTUA
arropa guztietan
Amezitia | DONEZTEBE
T. 948 45 16 70

kukuka
%10 DESKONTUA
pajama eta
barruko arropetan
Zazpigorutze, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 52

Maito mada
%5 DESKONTUA
30€tik gorako erosketetan
%10 DESKONTUA
100€tik gorako erosketetan
Promozioetan ezik
Nagusia, 4 | DONEZTEBE
T. 948 45 07 27

MALERREKA
%5 DESKONTUA
30€tik gorako erosketetan
Kale Nagusia, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 15 71

loreia
%5 DESKONTUA
kontsultetan
T. 948 45 14 73 | DONEZTEBE
loreia@kimetzbelardenda.com

Amaya Picabea
%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50€tik gora.
Promozioetan ezik
Amezitia | DONEZTEBE
T. 948 45 01 63

ARRATE ESTETIKA ZENTROA
%10 DESKONTUA
Skeyndor Eternal
kremetan
Eliza, 18 beheha | DONEZTEBE
T. 948 45 02 86

KARLOS ALZUGARAY
%10 DESKONTUA
hamar sailoko bonoan
Elizagibela, 4 beheha | DONEZTEBE
T. 607 85 32 08

EL BARRIO DE Mari Cruz
%10 DESKONTUA
30€tik gorako erosketetan
Parrokia, 11 | DONEZTEBE
T. 948 45 01 12

Miguelena
%10 DESKONTUA
erioju eta bitxietan
30€tik gorako erosketetan
Amezitia, 11 | DONEZTEBE
T. 948 45 09 25

Kimetz Belardenda
%5 DESKONTUA
kosmetikan, opari
artikuluetan eta
haur-eremalietan
T. 948 45 14 73 | DONEZTEBE
info@kimetzbelardenda.com

Alustiza
%10 DESKONTUA
30€tik gorako erosketetan
Nagusia, 12 | DONEZTEBE
T. 948 45 01 13

Nekazaritza Zerbitzuak
%5 DESKONTUA
zakur eta katuen pentsuari
Mourges, 20 Nabe 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 18 45

ttipi-ttapa
%10 DESKONTUA
esketetan
Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

CASA ESTIZ
%10 DESKONTUA
oinetakoetan
Parrokia, 17 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 89

Errigoraren kanpaina otsailaren 27an hasiko da

Martxoaren 12ra arte Nafarroa hegoaldeko olioia, kontserbak, arroza eta pasta eskatzen ahalko dira

TTIPI-TTAPA

Prest da Errigoraren udaberriko uzta. *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina otsailaren 27an hasiko da eta martxoaren 12ra bitarte Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserba-sortak, arroza eta pasta eskatzeko aukera izanen da, beti bezala, euskaraz etiketatuta, Errigorak euskara ofiziala den zonaldean eragin nahi duelako eta, auzolanari esker, norbere herrian ekoizlearen jatorrizko prezioan.

Gure hautuez harro izanen du aurtengo kanpainaren leloa,

Errigoratik adierazi dutenez, «harro baikaude gure ekoizteko eraz, gure kontsumitzeko eraz, herria egiteko eraz». Nabarmendu nahi izan dute «sei urtez milaka lagunek egin dugula kanpaina honetan parte hartzeko hautua». Horrek «eragina» baduela gaineratu dute, «izan ere, bertzela kontsumitzea da bertzela ekoizteko biderik eraginkorrenetakoa. Eskariaren bidez lortu dugu gero eta ekoizle gehiagok egitea bertako ekoizpenaren eta agroekologiaren aldeko hautua. Horrela bete dezake-



Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora.

gu gaur gure despentsa orburu ekologikoz edo bertako gariarekin egindako pastaz».

Eskaintza zabala

Aurtengo kanpainan 16 ekoizle hartuko dute parte: Nafarroa hegoalde eta erdialde zabaleko borts olio-errotak, bederratzitzi kontserba-etxek eta arroz-ekoizle eta pastagile banak. Urtez urte, kontsumitzaileen kopuruarekin batera, ekoizleen familia ere haziz doa.

Olioia borts litroko bidoietan banatuko dute eta kontserben banaketa 12 ontziko sortetan egingen dute. Aldi honetan, pikillo piperrak, zainzuriuriak, orburuak, barazki-menestra, tomate frijitua, arroza, potxak, barazki-kremak eta pasta eskainiko dituzte. Eskaera dena batera egin behar bada ere, banaketa bi zatitan egingen dute. Apirilean oliba-olioa banatuko dute eta maiatzean kontserbak, arroza eta pasta.

OTSAILAREN 27TIK MARTXOAREN 12RA

ESKATU NAFARROA HEGOALDEKO OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA —5 LITROKO BIDOIETAN— ETA ARROZA, PASTA ETA KONTSERBAK —12 ONTZIKO SORTETAN— EUSKARAZ ETIKETATUTA ETA EKOIZLEAREN JATORRIZKO PREZIOAN

NAFAR HEGOALDEKO UZTA
ESKUTIK ESKURA
GURE HAUTUEZ HARRO

WWW.ERRIGORA.EUS



Oihangintza, loreak eta landareak



Baratzezaintza
Lorezaintza eta Abeltzaintza
Albaitaritza Produktuak
Maskotentzako Osagarriak
Ehizarako eta Arrantzarako
ekipamendua

ZELAI

DANTXARINEA +34 848 478 881 · ARNEGI +34 948 790 070



Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA
altzuris@yahoo.es - Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 - 699 461 394

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

SU EGURRA ETA
PIKETEA SALGAI

Natura entzutea: zer egin jakitea bezain garrantzitsua da noiz eta nola egin jakitea

LARRETXEAK EGURRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri.
Piketeak eta sutarako egurra.



Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427



"TELLETXEA" Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatzeko Sistema Automatikoak | Paisajismoa



T. 619 418 683

Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
johntellexea@hotmail.com
www.tellexealozaintza.com

Esku-guraizeak, zerrak, belarra mozteko makinak, pikotxak, aitzurrak... eskuetan hartu eta lanean hasteko tenorea da. Udaberria ate-joka dugunez, garai egokia da lorategi, baratze eta mendietan zenbait lan egiten hasteko. Neguko loalditik udaberriko loraldira pasa aitzenetik, naturak gure bultzada behar baitu.

Zuhaitzak bota, landaketak egin, ongarritu, arbolak kimatu... luzea da egin daitezkeen lanen zerrenda. Zer egin bezain garrantzitsua da noiz eta nola egin jakitea, natura entzutea.

Ongarritu

Badira berandu baino lehen egin beharreko lanak. Fruitu arboladiak, lore multzoak, zuhaizpeak, belazeak eta zuhaixkapeak ongarritu nahi dituenari, adibidez, otsail hondarra baino lehen egitea komeni zaio. Iaz gaitzen eraso izan bazen, neguko olio tratamendua egiteko ere baliatu ditzakete otsaileko azken asteak. Urte sasoi honetan sustraiak aktibo egoten dira eta horregatik, ongarritzen bada, zuhaitzen kimuak sendotzea lortzen da. Neguan gorotza izan daiteke aukera hoberena, ongarriri hori nahi bertzeko diezaiokegu, gehiegikeria arriskurik ez du-eta.

PRESTATU
ZAITEZ
UDABERRIRAKO



ESKAINTZA
Husqvarna
lorategiko
makinetan



Husqvarna
xurgagailu
gama berria

BB BLOK BAT
TAILERRAK

BANATZAILE OFIZIALA
Santiago Kalea, 85 • ELIZONDO (Nafarroa)
www.biokbat.com • T(+34) 948 580 898

H
Husqvarna
READY WHEN YOU ARE

UDABERRIA DATOR, PRESTA ZAITEZ!

Aukera paregabea

Landiflor lorendan

Eskaintza zabala
denboraldiko loreetan,
landareetan...

Eta baita fruta arboletan ere.

Lore ontzi, lur ongarrri
eta lorategi osagarriak
zuen esku.

Landiflor-en ere
Venta Peio
fideltasun
txartela
erabili daiteke.



Landiflor

Landiflor zure lorendena egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00 Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

Dantxarinea Ibardin Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)

2020-02-20 | 752.zk. | Itipi-ttapa 31





Kimaketak eta txertoak

Azarotik apiril aldera arte kimaketa edo mugarratzea egiteko sasoirik onena da. Landarean egindako ebaketa hauei esker enborra eta adarrak indartu, hazkuntza erregulatu eta kaltetuta edo gaixorik dauden atalak kentzea lortzen da. Kimaketak zuhaitzari bizitza ere luzatzen dio, haizete eta elurteen kontra egonkorragoa bihurtzen da, bolumena txikitzen zaiolako. Kimatzen ez bada, zuhaitza bera ere arriskuan egon liteke, adar-karga izugarria hartzen duelako. Fruitu arbolen adarreko txertoak berriz, izerdia mugitzen hasi aurretik egitea komeni da, beraz, otsailean adi gerezi, aran, melokotoi eta goizeko fruitu arbolekin ere (udareak).

Zuhaitzak bota

Zuhaitzak botatzeko garaian, urte sasoiari baino gehiago, ilargiari begira egoten dira adituak. Espezie bakoitzaren arabera tenore bat bertzea baino hobea da. Pagoa eta haritz amerikarra ilberria denean botatzea komeni da. Materialetarako zuhaitzak eta su-egurretarako egur gogorak botatzeko, berriz, ilbehera da momenturik egokiena.

Ongarriketak otsail hondarra baino lehen egitea komeni da eta kimaketa edo mugarratzea azarotik apiril aldera bitarte

Hostoa galtzen duten zuhaitzak, igokariak, fruitu arbolak eta zuhaixkak dagoeneko landa daitezke, baina adi hormarekin

AGRICOLA BIDASOA

Lorezaintza eta nekazaritza makinaren salmenta eta konponketak



Auzolan, 16 - IRUN - T. 943 627 331
agribidasoa@gmail.com

Itxiturak egin

Negua etxe inguruan igaro ondotik, abereak belagietara ateratzeko garaia heldu da. Horregatik, itxiturak moldatu edo egin beharra ere izaten dute abeltzainek. Alanbrezko itxiturak izaten dira eraginkorrenak eta abere-espezieen arabera, alanbre-sare, alanbre-latz edo mistoak erabiltzen dituzte. Adituek diotenez, mistoak dira eraginkorrenak; itxitura hauekin azienda gehiena kontrolatzea lor baitaiteke: behi eta behorretatik hasi eta ardiataraino.

Animalien babeserako bakarrik ez, itxiturek etxe ingurua apaindu, espazioak banatu... bertze hainbat funtzio betetzen dituzte. Itxitura etxe ingurua mugatzeko erabiltzen denean, arrazoi estetikoak nagusitzen dira eta inguruarekin hobekien integratzen den aukera hautatzen da. Zureko itxiturak erabili ordez, landare edo zuhaixkak erabiltzen dituztenak ere badira. Urte osoan lorategia berde kolorez apainduta eduki nahi dutenentzat, adibidez, heskaia aukera egokia da, irmo eusten baitie eguraldi aldaketek. Landare igokariak jartzea bertze aukera bat da, espazioa mugatu eta intimitatea lortzen baita.

30 urtez zuen baratzetan!

JARDINERIE
ANIMALERIE
LAFITTE

Udaberria heldu da!

Zuhaitzak eta fruitu landareak landatzeko garaia da!

Bertako motak, hemen egoiztuak.

Loreak, tresnak, lore huntziak, kanpoko altzariak, maskotak.

Aukera handia eta hainbertze eskaintza!

LAFITTE
Jardinerie

84, 1945 maiatzaren 8ko etorbidea

64100 Baiona

tel: 00 33 5 59 42 24 42

www.lafitte.net



Berria!

Erlezaintzarako tresnak eta beharrezkoak hemen salgai!

Landaketak egin

Urtarriletik aitzinera hostoa galtzen duten zuhaitzak, igokariak, fruitu arbolak eta zuhaixkak landa daitezke. Dena den, kontuz ibili behar da hormarekin eta landatzerakoan sustraien arteko lurra ondo zanpatu behar da, zirrikiturik utzi gabe, hotza sustraietara iritsi ez dadin. Zein zuhaixka landatu erabakitzerakoan, bi irizpide har litezke kontuan, batetik lurra berak zer eskatzen eta ematen duen eta bertetik ustiatzaileak zein helburu dituen. Espezieen nahasketak ere, onura besterik ez dakar: indartsuena makalenaren akuilu bihurtzen baita.

Landareak landatu

Izotzik egiten ez duenean, hosto iraunkorreko eta erorkorreko landareak ere landa daitezke. Dena den, komeni da lurra hezeegia ez egotea. Landare bat edo bertze aukeratzeko orduan, orientazioa, lur klasea, lorategiari eskaini nahi diogun denbora... asko dira kontuan hartu beharreko irizpideak. Loreak argira egiten duenez, komeni da landareak norabide egokian jartzea. Ez dira ahaztu behar landare bakoitzaren berezko ezaugarriak. Toki eguzkitsuetarako arrosak, tagetesak, margaritak eta txinatar krabelinak gomendatzen dituzte. Itzal tokia bada, hortentsiak, azaleak, kameliak, begoniak eta alegriak.

Zaharretik berria sortu

Landare bizidun espezieetan (begoniak, bioletak, klubiak, krisantemoak, bitxiloreak...) zatiketen bidez landare berriak lor ditzakegu. Bi edo lau urtetik behin, landareak loreak emateari uzten dionean biziberritu daitezke. Landare lurretik atera behar da sustrai eta guzti eta zorrotzutako labana baten laguntzaz, mulu nagusia zatitu behar da. Zatikirik zaharrenak, erdi-koak normalean, ez dira erabilgarriak izaten: gainontzekoak. berehala lorategian landatu behar dira. Modu honetan, mulua gaztetzear, hurrengo aroan berriz loratuko da landare berri bat balitz bezala.



BERTAKO SAGARRONDOAK

Oina basatidun sagarrondoak bertako barietatekin txertatuak

www.zubialdepatxakak.com

Bengoarretxea etxea
Beintza-Labaien
T. 646 635 524



**STIHL POTENTZIA
OSOA, ORAIN
BATERIAREKIN**

ESKAINZA BEREZIAK ONLINE DENDAN !!

Aurki itzazu eskaintza onenak,
zure Stihl Denda espezialistan



STIHL

SEAL
MAQUINARIA

IRUÑEKO STIHL DENDA

www.sealmaquinaria.com

MUTILOA

948 24 80 00

SEAL
MAQUINARIA

Bartzelonara joateko izen-ematea otsailaren 24tik 26ra

Antolatzaileek izena eman nahi duten kideei «erne ibiltzeko» deia egin diete

PABLO IRASTORTZA

Aurtengo lehendabiziko sei bidaia eta irteeratarako izen-emateak urtarrilean eta otsail hasieran egin zituzten. Laster izen-emate gehiago irekiko dituzte.



Soinketa Eguna apirilean izanen da.

Bartzelonara bidaia eta Kantu Zaharren Eguna

Maiatzaren 4tik 7ra Bartzelonara egingen den bidaiaz gozatu nahi dutenek, erraterako, otsailaren 24an, 25ean eta 26an, heldu den astelehen, astearte eta asteazkenean, Doneztebeko bulegoko telefonora (948 45 08 78 edo 618 56 78 37) deitu beharko dute.

Apirilaren 23an egingen den Soinketa Egunean parte hartzeko, berriz, martxoaren 2an, 3an eta 4an apuntatu beharko dira, herri-delegatuei jakinaraziz.

Azkenik, urteko lehenengo hitzordu potolorako, hau da, Dantxarinean ospatzen den Euskal Kantu Zaharren Egunerako (aurten apirilaren 2an izanen da), izen-emateak martxoaren 9an, 10ean eta 11n aurreikusi dituzte, herri bakoitzeko delegatuekin harremanetan jarritz.

Hitzorduak izaten duten arrakasta ikusirik, elkarteko kideei «erne ibiltzeko» deia egin diete.



Herri bakoitzetik hiru bikotek parte hartuko dute finalean.

Herriz herriko mus txapelketak jokatzeko ari dira

PABLO IRASTORTZA

751. zenbakian azaldu bezala, martxan daude herri-delegatuek antolatzen dituzten mus txapelketak.

Otsailaren 6tik 9ra bitarte, hainbat herritan jokatu zituzten partidak. Elizondon Martin Gamio eta Juan Angel del Moral izan ziren irabazle, Maximo Obregozo eta Salvador Sobrino txapeldunorde eta Juan Larre eta Tomas Torres hirugarren. Almandozen Pedro Larretxea eta Esteban Sarratea gailendu ziren Patxi Apeztegia eta Jose Luis Zazperen kontra eta Jose Luis Oskoz eta Fran-

cisco Jabier Irurueta izan ziren hirugarren. Igantzin Jose Jabier Urtxegei eta Jose Mari Almandoz izan ziren garaile; Jabier Telletxea eta Amador Txoperena bigarren; eta Gerardo Sein eta Raimundo Telletxea hirugarren. Berako, Iparraldeko eta Irungo kanporaketan Miguel Lizasoain eta Karmelo Lizasoain izan ziren irabazle; Maria Josefa Bengoetxea eta Maria Mitxelena txapeldunorde eta Gabriel Mitxelena eta Amador Hernandez hirugarren.

Herri bakoitzeko hiru sailkatuek martxoaren 26ko finalerako txartela lortu dute.



PABLO IRASTORTZA

Sagardoa dastatu, bertsoak aditu eta gorputza mugitu

Elkarteko 220 lagunek urtarrilaren 30ean egitekoa zuten irteera ortsailaren 6an egin zuten. Oianume sagardotegian bazkaldu zuten eta Soto eta Peñagarikano bertsolariek eta Joxe Angel musikariak girotu zituzten bazterrak.

Eskerrak La Baztanesako arduradunei

Elkarteko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu La Baztanesako arduradun eta gidariei, izan dugun ustekabe batean, emandako laguntzagatik. Mila esker!

Martxoan irteera Xabierrera eta bidaia Andaluziara

Urtero bezala, elkarteko kideek Xabierrera irteera antolatuta dute martxoaren 10erako; 14tik 20ra, berriz, Andaluziara joanen dira (ikus 751.zk.).

Bigarren fasean sartuko dira Bardoak

Otsailaren 29an Anizen eta martxoaren 14an Goizuetan egingen dituzte finalurrekoetako saioak

TTIPI-TTAPA

Bardoak Nafarroako taldeko berto ekimenaren lehen fase arrakastatsuen ondotik, finalurrekoen fasean sartuko da.

Asteburuan jokatzekoak ziren Bardoetako lehen faseko azken hiru saioak, Leitzan, Lesakan eta Otsagabian, eta orduan zehaztuko dira finalurrekoak. Otsailaren 14an, Lesakako Arrano elkarteak, Lesaka, Etxalar eta Igantziko Arranopola (Ane Telletxea, Eneko Fernandez, Erika Lagoma, Estixu Arozena, Etxahun

Azkarraga, Iban Garro, Iratxe Muxika, Jon Silveira, Josu Sanjurjo, Lide Igoa, Ninbe Urtxegi eta Uxue Mesa) eta Barañaingo Bertsopiztiak aritzekoak ziren eta Leitzako Atekabeltz gaztetxean Leitzako Atekaaberts komeni (Aitzol Eizmendi, Ander Fuentes *Itturri*, Ane Intxausti, Iñigo Gorostarzu, Joanes Illarregi, Migel Mari Elosegi *Luze*, Mikel Azpiroz *Txotxa* eta Xabat Illarregi) eta Barañaingo Hego Haizea taldea.

Asteburu honen faltan, finalurrekoetako txartela es-



Bertonautak eta Larraungo taldea Elgorriagako ostatuko saioan. UTZITAKOIA

segurtatua zuten Berako Lamixene eta Malerrekako Bertonautak taldeek.

Lau multzotan banatuta aritu dira orain arte taldeak, eta sei talde pasako dira hurrengo fasera: lau multzo horietako lehenengoak, D multzoko bigarrena, eta A, B eta C multzoen arteko bigarren sailkatuetan onena. Eskualdeari dagokionez, finalurrekoetako saioak otsailaren 29an Anizko elkarteak (19:00) eta

martxoaren 14an Goizuetako ganbaran (18:00) egingen dituzte. Tuteran-Atarrabian eta Tafalla-Jautsaratsen egingen dituzte bertze finalurrekoak eta finala martxoaren 28an Lizarra Ikastolako areto nagusian.

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus eta Lizarra Ikastolan zein Lizarrako Katxetas tabernan izanen dira salgai, baita leihatilari ere, finalaren egunean 15:30etik aitzinera.



bardoak
2020
Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa
Urtarrilaren 31tik Martxoaren 28ra

Finalurrekoak

ANIZ (BAZTAN). Otsailak 29, larunbata.
Elkarteak, 19:00etan.

GOIZUETA. Martxoak 14, larunbata.
Udaletxeko ganbaran, 18:00etan.

Antolatzailea  www.bertsozale.eus Laguntzailea 

Independentzia eguna antolatu dute martxoaren 14rako

Mendialdeko gazteak bilduta «hausnartu, harremanetan jarri, borrokatu, disfrutatu eta ospatzeko» eguna izanen da

TTIPI-TTAPA

«Euskal Herri aske bat bihoztean» eta «independentziaren aldarria lau haizetara zabaltzeko» asmoz, Mendialdeko Independentzia eguna ospatuko dute martxoaren 14an Leitza. Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Leitzaldeko gazteek antolatu dute hitzordua eta egun osoko egitaraua prestatu dute «gazteok hausnartu, harremanetan jarri eta borrokatzeko, baita disfrutatu eta orain arte egindakoa ospatzeko ere».

Egitaraua

Martxoaren 14an, 11:00etan Atekabeltz gaztetxean mahai-inguru batekin hasiko dituzte eguneko ekitaldiak. Ainhoa Etxaide (LAB), Saioa Iraola (Bilgune Feminista), Iratxe Delgado (Ernai) eta Aitzol Gil

de San Vicente (Gora Ikasleon Borroka) gonbidatu dituzte eta hainbat borroka eredutatik prozesu independentistari egiten dioten ekarpena izanen dute hizpide. 13:00etan plazatik abiatuta manifestazioa egingen dute *Mendialdeko gazteok independentzia!* lelopean. 14:30ean herri bazkarian bilduko dira eta bazkalondoan kantaldia izanen dute. 18:00etan elektropoteoan ibiliko dira Rakatapunk elektrotzarangarekin. Bukatzeko, 23:00etatik aitzinera kontzertuak izanen dituzte Amazabal pilotalekuan. Gora Etorri, 2Zio, Bastardix eta Dj Bull taldeek girotuko dute gaua.

Parte hartzeko gonbidapena egin dute: «aukera paregabea dugu elkartu eta independentziaren aldarria hauspotzeko. Gonbidatuak zaudete».



UTZITAKOIA

Duela 18 urte egindako hitzordua betez

Erleta eskolako zikloa bukatu zutenean, Heleni Zabaleta eta Jaione Zubillaga irakasle tutoreekin batera 18 urte berandugoko hitzordua finkatu zuten 1990 urtean jaiotako leitzarrek. 2020ko otsailaren 2an, kapikua. Guztira 25 pertsona bildu ziren eta 2030eko martxoaren 2rako finkatu dute hurrengoa.




P. FEO

Kopla zahar eta berriak Santa Agedari

Urtarrilaren 4an, iluntzean, herritarrak Santa Ageda bezpera ospatzeko bildu ziren. Herriko kaleetan ibili ziren kopla zaharrak eta bat-bateko bertsoak kantatuz. Eztarriak aurrez berotuta zituzten gaztetxoek, *Agiragirando* kantari ibili baitziren asko goizean.

Amazabal pilotalekuan hainbat hobekuntza

Amazabal pilotalekuko segurtasun maila hobetze aldera, hainbat moldaketa egin ditu Udalak. Sarrerako atea aldatu eta margoketa-lanak egin dituzte eta eskailera inguruan segurtasun neurriak hobetu dituzte, arriskuak ekiditeko.



E. IRAOLA

Lan, bizitza eta pentsio duinaren alde

Urtarrilaren 30eko greba deialdiak erabateko jarraipena izan zuen Leitza, arlo pribatuan zein publikoan. Goizean kotxe karabana egin zuten eta arratsaldean *Lan, bizitza, eta pentsio duinak* aldarrikatzeko manifestazioa. Leitza eta inguruko herrietako ehunka herritar bildu ziren.



2016ko parte hartzaileak. ARTXIBOA

Balikebale lehiaketa apirilaren 3an egingen dute

Parte hartu nahi dutenek otsailaren 28ra arte izanen dute izena emateko aukera

TTIPI-TTAPA

Balikebale lehiaketa bueltan da eta ezustekorik ezean, Leitzako Herri Aretoaren estreinaldiko ekitaldia izanen da. Apirilaren 3an, 20:00etan jokatu dute «lehiaketa mundialaren» laugarren edizioa eta dagoeneko izena emateko epea irekita dago.

Taldeakoko lehiaketa

Antolatzaileek hemezortzi urtetik gorako herritar guztiei luzatu diete erronka: «Leitza ezagutzen duzula uste baduzu eta ongi pasa nahi baduzu parte hartu ezazu». Aurreko edizioetan bezalaxe, taldeakoko lehiaketa izanen da eta taldeek hiru pertsonakoak izan

beharko dute. Otsailaren 10ean ireki zuten izena emateko epea eta otsailaren 28ra arte egonen da zabalik. Interesa dutenek Euskara Zerbitzuan, 948 51 08 14 telefonora deituta edo laga@iparmank.eus helbidera idatzita edo Karrape Irratian, 948 61 09 14 telefonora deituta edo karrapeirratia@gmail.com helbidera idatzita eman dezakete izena. Gero, izena ematen duten talde guztien artean zozketa egin eta lau hautatuko dituzte. Lau horiek izanen dira apirilaren 3an oholtzara igoko direnak.

Galderak, ariketak eta hainbat berrikuntza

Leitzari buruzko galderak erantzun, ariketa bereziak osatu... eta proba berriak ere prest dituztela azaldu dute antolatzaileek, «parte hartzaileek zein ikusleek primeran pasatzeko aukera izanen dute».

Sariak denentzat

Parte hartzaileak ez dira etxera esku hutsik joanen. Irabazleek 450 euroko txeketa eskuratuko dute eta horretaz gain, parte hartzaile guztien artean sari ederrak banatuko dituzte: kultur ekitaldietarako sarrerak, herriko produktuak...

Mendibil taldeak Belagoara egitekoak zuen irteera kolokan

Martxoaren 1ean iraupen eskia egitera joatekoak ziren Belagoara Mendibil Mendi taldekoak, baina elur eskasia dela eta, gaur gaurkoz, badi-rudi data horretan ez dutela joaterik izanen. Irteera aurrerago antolatzen badute jakinaraziko dute.

Euskal Herria Mendi Erronka lasterketako izen-ematea abailan

Otsailaren 1ean ireki zuten Euskal Herria Mendi Erronka lasterketarako izena emateko epea eta badi-rudi lasterkariak gogotsu daudela ekainaren 6an jokatu den proban parte hartzeko. Hau idazterakoan, bakarka lehiazteko 700 plaza-tatik 560 beteak zeuden eta bikoteka aritzeko 50etik 40. Aurten, boluntarioek ateratako argazkiak saritzeko lehiaketa ere antolatu dute. Maiazaren 30a baino lehen bidal ditzaizkete argazkiak eta atsegin gehien jasotzen dituenek motxila bat izanen du opari.

'Zauria(k)' dokumentalaren emanaldia eta egileekin solasaldia otsailaren 20an

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 20an, ostegunean, 18:30etik aurrera *Zauria(k)* proiektua izanen dute hizpide Atekabeltz Herrigunean. Sas-trakak Leitzaldeko Feministak taldeak antolatu du hitzordua eta bertaratzen direnek, eromena, gaizkiegonak eta osasun mentala ikuspegi feminista batetik lantzen dituen proiektua ezagutzeko aukera izanen dute. Maier Irigoien Ulaiar, Isabel Saez Perez eta Iker Oiz Elgorriaga dira egileak eta nar-ratiba, ilustrazioa eta poesia lotuz, bederatzi emakumeren



Zauria(k). UTZITAKOIA

errealitatea ikusarazten duen dokumentala osatu dute. Atekabeltzen izanen dira egileak eta dokumentala ikusi ondotik luntxa janez, haiekin solasteko aukera izanen da.



J.M BARRIOLA

Zazpi bikote Nafarroako finalera

Bordaberri eta I.Barandiaran, J. Rekondo eta A. Makazaga, A. Gomez eta I. De Carlos, L. Kasares eta M. Zabaleta, L.M. Erbiti eta *Aborda*, K. Sagastibeltza eta J. L. Larralde eta M. Zestau eta M. Martinez dira otsailaren 29an Iruñean jokatu den Nafarroako mus txapelketako finalerako sailkatu direnak.



Nafarroako Parlamentuko ordezkariak proiektua ezagutu ahal izan zuten.

Parlamentuko ordezkariak ospitale zaharra bisitatu dute

Udalak eraikina zaharberritu eta sei etxebizitza egokitu eta gizarte helburuak dituen lokala egin nahi du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Batzordeko kideek ospitale zaharra bisitatu zuten, otsailaren 5ean, EH Bilduren eskariz. Udalak ospitale zaharra birgaitzeko esku artean duen proiektua

ezagutzeko aukera izan zuten: «etxebizitza egokituak eta alokairu sozialekoak eraikitzea da asmoa, baita adineko pertsonen estaldura soziala emateko lokal bat egitea ere».

Berreraikitze-proiektua

1898an Florencio Ansoleagak dohaintzan eman zuen erai-

kina, «herriko behartsuak eta gaixoak artatzeko», eta funtzio hori 80ko hamarkadara arte bete zuen, Asilo San Miguel patronatuakudeatuta. 2009an Udalaren jabetzakoa izatera pasatu zen, eta 2011n berreraikitze proiektu bat egiteko dirulaguntza eman bazen ere, krisi ekonomikoaren ondorioz kendu egin zuten laguntza.

Proiektu honekin, Udalak herritarren premiazko beharrik ase nahi ditu: «Goizuetan etxebizitzarekin dagoen arazoari amaiera ematea eta despopulazioari galga jartzea da asmoa, baita estaldura soziala ematea eta adineko pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea ere, haien beharretara egokitutako etxebizitza batekin eta autonomia sustatzeko zerbitzuak eskaintzeko lokal batekin».

Junkal Otxotorena gizarte langileak zehaztu zuen proiektu honi esker, «adinekoak egotzetan sartzea saihestu» daitekeela; izan ere, «adineko pertsonen, eguneko zentroa bezalako prestazioak bermatuta izan arren, ez dute garraioa bermatuta, eta horrek, askotan, beren etxeak utzi behar izatea dakar».

Finantziaketa «arazo»

Alderdi guztietako bozeramaileek, azalpenak eskertu eta ahobetez esan zuten «proiektua komenigarria» dela. Patxi Perezek (Navarra Suma) zehaztu zuen eraikinak birgaitzea «Nafarroako iparraldeko behar orokorra» dela eta kasu honetan «gainerakoetatik oso urrun dagoenez, herritar guztiei zerbitzuak bermatu ahal izateko apustu bat beharrezkoa» dela. Arantza Biurrunek (PSN) azpimarratu zuenez, gaur egun «etxebizitza eredu berrien aldeko apustua egiten ari dira, eta proiektu hau hor koka daiteke; gainera, beharrei eta eskubide sozialei buruz hitz egiten ari gara, eta hori da ekimen hau bideratzeko hartu beharreko bidea». Ana Ansak (Geroa Bai) «informazioa kontseilariari eta departamentuari» helarazteko konpromisoa agertu zuen, eta «Nasuvinsa lantzen ari den etxebizitza sozialeko proiektuetan lekua duen proiektua» dela adierazi. Laura Aznalek (EH Bildu) defendatu duenez, «despopulazioa dugu erronka handienetakoa bat», eta proiektu honek aurrera egin behar du, «Horridura eta eskaria daudelako. Arazoa finantzaketa da».



UTZITAKOIA

Klubaren arteko pilota txapelketa jokoan

Mendialdeko Mankomunitateak hartzen dituen herrietan esku pilota bultzatu eta pilotarien harremanak sendotzeko asmoz, Umore Ona, Larraun, Aurrera eta Araxes klubaren arteko binakako pilota txapelketa antolatu dute. Otsailaren 5ean hasi zen txapelketa eta martxoaren 7an bukatuko da.



FELIX LOIARTE

Santa Ageda bezperan ohiturari eutsiz

Duela hamaika bat urte Umore Ona abesbatzak abiatutako ohiturari eutsiz, Juan Antonio Lekuonak altxaferoa bota ondotik, hogeitabat lagun atera ziren santa eskean. Olaia eta Janire trikitilariak eta Janire panderojolearekin batera, Josu, Esteban, Dani eta Juanan aritu ziren koplakantari.



Iluntzean elkartu eta herriari itzulia eman zioten kantuan. E. IRAOLA

Kuadrilla ederra bildu da Areson Santa Ageda bezperan

TTIPI-TTAPA

Pasa den urtean bezalaxe, zapiak lepoan, makilak eskuetan eta kopla zaharrak mingainean izan zituzten aresoarrek otsailaren 4an. Guraso Elkarteko kideek iaz berreskuratu zuten galdua zen ohitura, akordeoilariek lagunduta, giro ederrean aurten ere berritu dutena. Gurasoei

adituak zizkieten gazte denboran eskean ateratzen zireneko kontuak eta ohitura berreskuratzea polita izan zitekeela pentsatuta, herritar guztiei egin zieten pasa den urtean kantuan ateratzeko gonbidapena. Aurten, iaz baino jende gehiago biltzea lortu eta afariarekin borobildu zuten hitzordua.



E. IRAOLA

Giro bikaina izan dute inauterietan

Festan bukatu eta festan hasi, inauteri giroan lotu dituzte urtarrila eta otsaila aresoarrek. Ostiralean eskolako haur, guraso eta irakasleen kalejirarekin hasi eta larunbateko dantzaldiarekin eman zieten bukaera. Mozorroa jantzi, lotsak etxean utzi eta denen artean giro bikaina sortu zuten.

Hilabete bukaeran jarriko dute martxan liburutegi ibiltaria

Areson otsailaren 27an eta Goizueta eta Aranon otsailaren 28an izanen dute lehenbiziko zerbitzua

TTIPI-TTAPA

Hilabetean behin izanen dute liburutegi ibiltariaren bisita Arano, Areso eta Goizuetan. Hala, Leitzako liburutegira joan beharrik gabe, dokumentuak jasotzeko aukera izanen dute herritarrek: liburuak, aldizkariak, egunkariak, CDak, DVDak... interneten kontsultatu dezaketen katalogo zabala dute. Ez hori bakarrik, irakurzaletasuna bultzatzeko sortu daitezkeen ekintzetarako baliabideak, sostengua eta aholkularitza ere eskaini nahi dute zerbitzu honen bidez. Irakurle talde bat sortu, ipuin-kontakteta saio bat antolatu... herritarrak inplikatzeko da helburua.

Zerbitzua dohainik

Zerbitzua dohainik izanen da, baina ezinbestekoa da Nafa-

rroako Liburutegi Publikoetako bazkide txartela egitea (fitxak udaletxeetan eskura daitezke). Gainera, liburutegi ibiltariko erabiltzaileek hainbat abantaila izanen dituzte: «hamabi dokumentu sei astez maileguan hartzeko aukera izanen dute».

Funtzionamendua

Erabiltzaileek banaketa eguna baino lehen egin beharko dute eskaera whatsapp, email edo telefonoz. Hilabetean behin egingen dute dokumentu trukea: maileguan hartutakoak itzuli eta berriak hartu. Hilabeteko azken ostegunetan Aresoko Udaletxean bilduko dira 14:15etik 15:00etara. Goizuetan, hilabeteko azken ostiralean, 14:30etik 15:00etara Goxalin eta Aranon, 15:30etik 16:00etara Maisuenean.

Herriko inauteriei buruzko jardunaldi interesgarria egin dute Aranon

TTIPI-TTAPA

Aranoko inauteriei buruzko jardunaldia egin zuten otsailaren 2an Maisuenean. 30 lagun elkartu ziren, zahagi-dantzaren inguruan hausnarketa egin eta bizi izandako esperientziak partekatzeko. Jai Batzordeak antolatu zuen hitzordua, gazteekin gaia landu nahi dutelako. Horrela, ohitura honen jarraipena bermatu eta egungo errealitateetara egokitzea da asmoa. Diapositiba, argazki eta liburu etako erreferentzien bidez, zahagi-dantzaren protagonistak zertan ibiltzen ziren



30 bat lagun bildu ziren. O. KALPARSORO

ikusi eta zomorroen janzkeraren bilakaeraz eta galdutako ohiturez hitz egin zuten. Otsailaren 15ean ospatzekoak zituzten inauteriak, ohitura zaharrak biziberrituz.



Bi egunetan, gosaldu eta etxez etxe ibiliko dira. UTZITAKOA

Gartzaingo inauteriak ortziraletan eta larunbatean

Larunbatean herritar zahar zein gazteak bilduta, afaria eginen dute elkarteak

TTIPI-TTAPA

Inauteriak ate joka dituzte Gartzainen. Bi egunez, heldu den ortziraletan eta larunbatean, mozorroak soinean, harat-honatean ibiliko dira.

Baserriz baserri

Otsailaren 21ean, ortziraletan, 09:00etan bilduko dira Fransenen. Bertan gosaldu ondotik, baserrietara joanen dira eskean. Baserrietatik Etxarri auzora joko dute lehendabizi eta Aixtegiara gero. Akordeoia girotuko ditu bazterrak. Buelta horrekin akituko dute eguna eta larunbatean indarbe-

rrituta egoteko, atsedan hartuko dute.

Afaria elkarteak

Larunbatean, berriz ere, sabelak betetz hasiko dute eguna. Herriko elkarteak gosalduko dute. Segidan, trikitilariak lagun, etxez etxe ibiliko dira, herrian eta goitiko auzoan. Inauteriak borobiltzeko zaharrek zein gazteek afari ederra eginen dute. Afalondoa luzatu nahi duenak musika paratu eta dantzan ibiltzeko aukera izanen du. Egitarau xumea baina polita dakarte aurten ere herriko inauteriek.



Xebax Cristhyk, Euskal Moneta elkarteak, eskaini zuen solasaldia.

Euskoak tokiko ekonomiari egiten dion ekarpenaz aritu dira Elizondon

TTIPI-TTAPA

Arras Baztan fundazioak antolatutik, Ipar Euskal Herriko eusko izeneko tokiko txanpona aurkeztu zuen otsailaren 5ean Xebax Cristhyk, Euskal Moneta elkarteak lehendakariak, Elizondon. Cristhyk azaldu zuenez, ekonomia lurraldearekin lotzen delarik, eko-

nomia birtokiratzen da, trantsizio ekologikoan lagunduz. eusko txanponak hori bilatzen du, saltoki ttikiak eta ingurugiroaren aldeko enpresak lagunduz. Horrekin batera, euskara bultzatzeko, Eusko erabiltzen duten enpresek seinaleak elebizi izateko konpromisoa hartzen dute.

Sagardotegirako izen-ematea irekita otsailaren 29ra arte

Martxoaren 14an sagardotegira joateko irteera antolatu dute. Elizondotik 12:00 aldera abiatuko dira Hernanira eta 02:30ean egiten dute buelta. Joan ahal izateko, Mendi ostatuan jakinarazi eta 13 euro ordaindu beharko dira otsailaren 29a baino lehen.

Irurritako dantzarien eskutik 'Izarrak' otsailaren 29an

Irurritako dantzariak, musika eta abesbatza ttikiko kideekin batera, *Izarrak* ikuskizuna eskainiko dute otsailaren 29an, hondarreko larunbatean. Pilotalekuan dute hitzordua, 20:00etan. Ohiko dantza moldeak eta bertzelako sorkuntzak plazaratuko dituzte.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
TALDEKO ENPREA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130



Gisa guztietako mozorroak jantziko dituzte herritarrek.

Mozorroak eta eskeak asteburuan Lekarozen

Ortziralean eskean ibili ondotik, afaria izanen dute Larraldea sagardotegian

TTIPI-TTAPA

Inauteriak ate joka dituzte Lekarozen. Heldu den ortziralean eta larunbatean, otsailaren 21ean eta 22an mozorroak soinean etxez etxe ibiliko dira herritarrek. Hilaren 21ean, ortziralean, elkarteak gosalduko dute eta herriko eskolatik abiatuta, baserriz baserri

ibiliko dira. Ondotik, Larraldea sagardotegian afalduko dute. Larunbatean, otsailaren 22an, elkarteak gosalduko dute eta herrian barna eskea egingen dute. Bi egunez Agirre musika izanen dute giro-jartzailer eta mozorro-dantza eta jan-edan artean giro ederra izanen dute.



UTZITAKOAK

Iruritako inauteriak baserrietatik herrira

Otsailaren 8an eta 9an baserrietako inauteriak izan zituzten Iruritan. 50 lagun inguru bildu ziren baserriz baserriko bueltan. Otsailaren 21ean eta 22an herriko inauteriak izanen dituzte. Bi egunez baserriz baserri ibiliko dira eta ortziralean afaria eta larunbatean bazkaria izan dituzte Olari jatetxean.



UTZITAKOAK

Adinekoen bizipenak gazteen irakasgai

Elizondoko Lanbide Heziketako ikasleek zahar etxeko erabiltzaileen bizipenak ezagutzeko Ikaskuntza Zerbitzu Solidarioa izeneko proiektuan parte hartu dute. Lanketa besta batekin borobildu dute.

Martxoko azoketan postua paratzeko izen-ematea irekita

Argitsu elkarteko artisauak, otsailean atsedean hartuta, martxoan indarberituta bueltatuko dira. San Jose zubia dela eta, martxoaren 19an, ortzegunean, Elizondon eta eta martxoaren 21ean, larunbatean, Erratzun postuak paratzeko asmoa dute. Lerro hauen bidez, antolatzaileek parte hartu nahi duten artisauei izena emateko epea heldu den ortziralean, otsailaren 21ean, akitzen dela oroitarazi nahi izan diete. Postua paratu nahi dutenek hiru euro ordaindu beharko dituzte.



'Sahara libre baten alde' bilduko dira Elizondoko plazan. MAIXABEL GAMIO

Sahararen aldeko elkarretaratzea otsailaren 28an

Ondotik dokumentala eta solasaldia izanen dituzte Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Saharaztan elkarteak antolatuta, otsailaren 28an, hondarreko ortziralean, Sahararen aldeko elkarretaratzea egingen dute Elizondoko plazan. 19:00etan elkartuko dira eta herritarrei eta ingurukoei berretartzeko gonbidapena luzatu diete.

Dokumentala eta solasaldia

Elkarretaratzearen ondotik, Arizkunenea kultur etxean dokumental bat ikusteko bilduko dira eta arratsaldea solasaldi batekin borobilduko dute.

Erratzuko herritarrei esker onez

Elkarretaratzea ez da baztandarrek sahararren alde egingandako elkartasun keinu bakarra izan, bertzelako ekarpenak egin izan dituzte. Errate baterako, Maixabel Gamiok joan den urte hondarrean erratzuarrek emandako laguntza eskertu nahi izan du. Adierazi zigunez, Sahararen alde dirua biltzeko paratutako kutxek «erantzun ona» izan zuten. Bildutako diru hori Berriozartik Saharara joan zen laguntaldearekin bidali zuen Gamiok.



Otsailaren 9an egin zuten aurkezpena Amaiurko gaztelutik.

Amaiurren aurkeztu dute Leitzan izan den Independentzia Eguna

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko gazteak otsailaren 9an Amaiurren bildu ziren. «Euskaldunon independentzia egariaren monumentua» dagoen eremutik aurkeztu zuten martxoaren 14an Leitzan egitekoa duten Independentzia Eguna: «elkartu,

indartu eta independentziaren aldeko gazte dinamika berpiztu eta indartzeko». Egun osoko egitaraua aurkeztearekin batera (ikus 36.or.) parte hartzeko gonbidapena egin dute: «aukera paregabera dugu elkartu eta independentziaren aldarria hauspotzeko. Gonbidatuak zaudete!».

Baztan Rugby Taldearen gaupasa martxoaren 28an

Baztango Rugby Taldeak antolatutako gaupasak badu eguna. Aurten, martxoaren 28an zehaztu dute hitzordua eta, ohi bezala, Larraintzarko pilotalekua izanen dute bilgune. Afaria, zozketak, dantzak... gauaz gozatzeko aukera izanen dute.

Speedcubing txapelketa apirilean Elizondon

Aurten ere, Rubiken kuba egiteko gaitasuna eta azkartasuna ardatz dituen Speedcubing txapelketa antolatuta dute Baztanen apirilaren 10erako eta 11rako. Elizondon izanen dute hitzordua eta eguna hurbildu ahala emanen dituzte xehetasunak.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Feretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Haunrendako jolasak izanen dituzte larunbatean.

Orakunde Eguna otsailaren 22an Anizen

Etkez etxe bildutakoarekin afaria egingen dute herriko elkartean

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 22an Orakunde Eguna izanen dute Anizen. Haurrek eta gurasoek 10:00etan hitzordua egingen dute *plaxa-xaharren*. Baserritarrez bez-tituak, zarea eskutan eta musikariekin, etkez etxe ibiliko dira. Ondotik, zartagin dantza eta bazkaria izanen dute.

16:30ean haur jokoak izanen dira: globoak ipurdiekin haustea, batak bertzeari hankatik dilindan duen globo haustea, arroltzea kuxetan paratuta harat-honat joan-etorria egitea, zapatilak lotuta binaka itzulia egitea, zaku lasterketa,

sagarra ausikika jan... eta horiek denak egin ondotik, hondarreko jokoa oilarra harra-patzearena izanen da. Begiak tapatuak dituztela, oilarra frontoiko xokoren batean utziko da eta inguruan daudenen erranei jarraikiz, oilarra harra-patu beharko dute. Harra-patzen duenak etxerat eramannen du. 19:30 aldera afaria egingen da elkartean, etkez etxe bildutako puskekin.

Ondoko astean haurren inautek ospatuko dituzte. Mozerroak jantzi eta herrian barna ibiliko dira. Elkartean afari merienda egingen dute.



AINHOA ASTIZ

Bertso afaria Lekarozen

Sotok eta Sarriegik girotutako bertso afaria egin zuten otsailaren 8an, larunbatean, Lekarozko Larraldea sagardotegian. Guztira 65 bat lagun bildu ziren. Bertsoak eta umorea uztartuz, mahai-inguru ederraz gozatu zuten. Inauterietarako beroketak eginda dituzte dagoeneko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lan, pentsio eta bizitza duinaren alde

Baztandar anitzek urtarrilaren 30ean lan, pentsio eta bizitza duinaren alde egindako greba deialdiarekin bat egingen zuten. Goizean auto-karabanak izan ziren; eguerdian Elizondoko plazan bildu ziren bazkaltzeko; eta iluntzean manifestazioa egin zuten Donezteben.

LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

IDIAZABAL

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttppi.ttapa



Arras Baztan Fundazioko ordezkariak, otsailaren 12an egindako kanpainaren aurkezpenean. JUAN MARI ONDIKOL

Konpromiso ttikien kanpaina abiatu du Arras Baztanek

Hondakinak, energia, ura, elikadura eta euskara arloetan eragin nahi dute modu kolektiboan

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 12an aurkeztu zuen Arras Baztan Fundazioak Konpromiso ttikien kanpaina. Helburua, edonoren eskura diren ekintza ttikiak kolektiboki pentsatu eta egitea dela azaldu zuten: «eguneroko hautu kontzientearen bidez tokiko ekonomia indartzea, lurraldearekin eta herritar guztien ongizatearekin konprometituri. Gure buruak aldatzea, bizitzeko toki hobea sortzeko. Eta horregatik eza-gutu gaitzela».

Baztan hobetzeko agenda positiboa sortu nahi dute, «oraingo erronka globalekin bat eginez, aldaketa handien aldi honetarako tokiko mailatik egokitu nahi dugu».

Bortz arlotan ekintza zehatzak

Hasteko, bortz arlo hautatu dituzte: «hondakinak, energia, ura, elikadura eta euskara» eta ekintza zehatzak proposatu: «hondakinetan, organikoa bereizteko konpromisoa hartzea eta horren enbaxadore

izatea; energian, norberaren lantegian LED argiak paratzea eta ahal dela berrerabilgarriak izatea; urari dagokionez, bakoitzaren jardueratik plastikozko ur-botilak kentzea edo ostatuen eta saltokien kasuan, plastikozkoak baztertu gabe kristalezkoak ere eskaintzea; elikaduran Baztango esnea erabiltzen duten markak kontsumitzea (Jauregia, Kaiku eta Lacturale) eta euskara arloan ordainagiri, faktura eta tiketak euskaraz ere egotea».

Aunitzek gaurgero aipatutako konpromiso horiek betetzen dituzte, baina berrikuntza, «pausoak kolektiboki eman» nahi dituztela da, «konpromiso ttikien kanpaina eginahal handi baten hasiera bertzerik ez da».

EGUNEROKO HAUTU TTIKIEN BIDEZ TOKIKO EKONOMIA INDARTU NAHI DUTE

Arras Baztan marka, «ekintza konkretu zehatzen bidez gure burua eta lurraldea hobetzeko erreminta» izatea nahi dute. Tokiko ekonomia indartu nahi dute, «eragileen arteko harremanak indartuz, elkarlanerako giroa sortuz eta bertako produktu eta zerbitzuak lurraldearen hobekuntza eta aldaketa positiboarekin lotuz». Hala, Arras Baztan Fundazioko kideen aurkezpen txartela, «XXI. Mendeko landa eremu bizia izanen da».

Konpromiso irmoa

Aipatutako neurriak betetzen dituztela neurtzeko parte hartzaileek konpromiso-agiria sinatu beharko dute eta ondotik Arras Baztan fundazioko patronatuak begirale eta ikuskatzaile lanak egingen dituzte: «erraten dugun hori betetzen dugula bermatzeko eta betetzen ez delarik zergatik betetzen ez den esplikatu ahal izateko».

Denera Baztango 60 eragile ekonomiko baino gehiago biltzen dira Arras Baztan Fundazioan: «ekoizleak, artisauak, merkataria, zerbitzuak, ostalariak, alojamentu turistikoa... Herritarrek ekonomian eragiteko duten tartea edo aukera baliatu nahi du Arras Baztan fundazioak, «joko-tarte mugatua izanagatik parte hartuko duten bailarako eragileen eskuetan dagoelako, bertze hirugarrenen zain egon gabe».

Produkzioarako laguntza ikastaroa antolatu dute Lekarozen

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Melitón Estudioak zinemako plato estreinatu berrietan produkzio-lanekin eta langileen prestakuntza saioekin hasiak dira.

Oraingoan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eskutik, produkzioarako laguntza ikastaroa antolatu du Melitón Estudioetan. Zinean eta ikus-entzunezko produkzio mota guztietan lan egin nahi duten ikasleentzat, langileentzat edo langabeentzat da, bereziki produkzioaren arloan.

Etorkizuneko ekoizpen zinematografikoetan lana eskaini diezaieketen pertsonak prestatzea eta ezagutzea da helburua. Ikastaroan modu teorikoan eta praktikoan landuko dira ikus-entzunezko hizkuntza, garapena, aurreproduktzioa eta filmazioen kudeaketa eta antolaketa.

65 orduko iraupena

Hogei lagunentzako lekua du Lekarozen eskainiko den ikastaroak eta 65 orduko iraupena du, bortz asteburutan banatuta, otsailaren 29tik martxoaren 29ra, larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara eta igandetan 10:00etatik 15:00etara. Ikastaro honetarako baldintza ordenagailu eramangarri bat ikasgeletara ekartzea da eta hura erabiltzeko oinarrizko ezagutzak izatea.

Ikastaroa emanen duten irakasleak adituak dira zinema eta ikus-entzunezko produkzioan. Ikasleak hautatzeko eskaera aztertuko da eta eskatzaileei jakinaraziko zaie ikastaroan onartuak izan diren ala ez.

Izena eman nahi dutenek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren web orriaren bidez egin beharko dute.

Bertso txapelketako finalaurrekoa 29an Anizen

Otsaila akitzeko, 29an, Nafarroako Bertsolari Txapelketako Bardoen finalaurrekoetako lehenbizikoa Anizen ospatuko da. Ordua zehazteko dugu oraino, baina 19:00 aldera izanen da Anizko Mendiarte Kultur elkartearen. Ondotik jateko aukera izanen da.

Lekarozko institutuko ikasle bat saritua

Nafarroako Oinarrizko, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako 28 ikaslek LH eta Arte Plastikoak eta Diseinuko 2018-2019 aparteko Sariak banatu zituzten otsailaren 3an. Horien artean izan zen Ruben Salinas Lekarozko erdi mailako zikloko ikaslea.



ONDIKOL

Jendetza bildu da Gizakunde Egunean

Erratzuko kultur elkarteak, Jo ala Jok eta Baztango Talde Feministak antolatuta, Gizakunde Eguna ospatu zuten otsailaren 8an Arizkunetan eta Erratzun. Gamioxarrean bazkalduta, Erratzura joan ziren eta plazan Jantzilo epaitu zuten. Usadioari eusteko edo ezagutzeko jendea bildu zen.

Baztango Mendigoizaleak Aizkolegira joanen dira martxoaren 1ean

TTIPI-TTAPA

Inauterietan atseden hartu ondotik, mendiko botak jantzi eta bateko eta bertzeko kaxkoetara joateko hitzorduak prest dituzte mendigoizaleek.

Martxoaren 1ean, igandean, Aizkolegira joanen dira. 07:30ean zehaztu dute hitzordua, Elizondoko plazan. Ondoko ibilbidea eginen dute: Lekaroztik abiatu eta Zarboztan barrena Aizkolegira joanen dira. Hortik, Beltzuri eta Olaberrin barrena Lekarozera eginen dute buelta. Ondoko larunbatean, 7an, Astiga-



Mendigoizaleen hitzorduak prest dira.

rragara joanen dira (Aurtiz, Ekaitza, Ollargarata lepoa, Bianditz, Zaria, Oiartzun). Azken ibilaldi hori egin nahi dutenek otsailaren 28rako izena eman beharko dute.

ZUGARRAMURDI



Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre izanen dira hizlari. URIOLA.EUS

Euskara eta feminismoa solasgai otsailaren 28an

Sorginen Museoan dute hitzordua, otsailaren 28an, 20:00etan

TTIPI-TTAPA

Zugarramurdiko talde feministak antolatuta, *Euskaratik feminismo* eta *feminismo*tik euskararat izenburupean solasaldia izanen dute otsailaren 28an hilaren herrian.

Idurre Eskisabel (kazetaria eta EHUKo irakaslea) eta Lorea Agirre (*Jakineko* zuzendaria) izanen dira hizlari eta hizkuntzaren eta generoaren arteko loturak izanen dituzte hizpide mahai inguruan. Sorginen Museoan zehaztu dute hitzordua, iluntzean, 20:00etan hasita.

Sorginen Kobazuloak dirulaguntza

Udalak jakinarazi duenez, Sorginen Kobazuloan ibilbideak, ekipak eta material informatiboa egiteko azterketa-diagnostikoa biltzen duen proiektuak, 2014-2020 Landa Garapenerako Programaren bidez, 4.650 euroko dirulaguntza jaso du.

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGFNF) eta Nafarroako Gobernuak kofinantzatu eta Cerderna Garalurrek kudeatutako europar programaren bidez jaso dute dirulaguntza.

**ATERA
TTIPI
TXARTELA**

**eta erabili
pegatina hau ikusten
duzun denda eta
zerbitzuetan**



probextu aukera!



ttipi-ttapa





Eskuinean Iñaki Iciaga eta Jean-Marie Lapeyre, SPUCEko pilotariak, bigarren mailako txapeldun. UTZITAKO ARGAZKIA

Pasakako txapela irabazi dute Lapeyrek eta Iciagak

SPUCEko bikoteak Euskal Herriko txapelketako bigarren mailako finala irabazi dio Hiriburukoari otsailaren 9an

PIERRE BASTRES

Euskal Herriko Txapelketa otsailaren 9an burutu zen Xilar trinketea, Zuraiden. Bi mailako finalak jokatu ziren, eta bigarren mailakoa eraman zuten Jean-Marie Lapeyre eta Iñaki Iciagak. Sebastien Txetx Etxeverry SPUCEko elkarteko lehendakarietako bat han zen, eta bere ustez, «partida tinki gan duk, bi ekipa elkarren bete zituan. Hiriburukoek gaina hartzen ahalko ziteian, baina behar denetan pilota inportanteak moztu ditik Iñakik. Eta giblean, Jean-Marie ez ditek batere mugiarazi eta nekatu,

beraz, nahi duena erdietsi ahal izan dik. Loretan gaituk zeren eta 58 urte ditik Jean-Mariet, bere trebezia ez duk ahultzen. Izan dadin Joko Garbin, zesta puntan eta pasakan, modalitate bakoitzean txapelketa bana baino gehiago irabazi ditik, gehienak lehen mailan!».

Pasaka esku-huska edo joko-garbi baino aise guttiago ezaguna izanagatik ere, goiti egiten ari da ekipen kopuruak. Izan ere, lan eta lan ari da Pasakako Lagunak elkarte, jendea hurbiltzeko, jolastuz, adierazi dauku Etcheverryk: «Aste hondarretan ezker eta

eskuin gaki gaituk pasakaren ezagutarazterat, hurbileko pilotazaleak gonbidatzen di-tiagu trinketetar, lagun-en-arte-ko partidak egiterat gure-kin. Ereindakoaren uzta egin diagu aurten: 11 ekipak izen-petu behar ziteian txapelketan, eta azkenean 23k parte hartu ditek». Bertzalde, Baztango Laxoa Elkarteko Urtasun eta Alunda lehen mailako txapel-dun izan dira aurten, Iparral-detik kanpo hedatzen hasia dela erakutsiz.

Heldu den urtean, bertze hozka batez handitu daiteke txapelketaren hedapena, Txetx-ek gehitu duen bezala «esku-titz bat igorri berri zaukuk Galiziako gizon batek, han ere pasaka lehiaketa bat egin du-tela, eta Europako Txapelketa egiteko gai garela orain, eta St Pierre eta Miquelon uhartetan (Kanadako Ternua uhartetik 25 kilometrotara) ere aritzen direlaket, mundukoa eginen dugula! Egitasmo hau gauza-tu beharko diagu!».

Mariane Aya Omac kantaria Larrekon izanen da martxoaren 4an

TTIPI-TTAPA

Mariane Aya Omac kantariak kontzertua eskainiko du mar-txoaren 4an, asteazkenean, 21:00etan, Larreko kultur-are-toan. Sarrera 20 euro ordain-du beharko dute helduek eta bortz euro hamasei urte edo guttiago dutenek.

Oroz gainetik, Maryanne Aya Omacen ahots berdinga-bea, ahaltsua eta beroa da; mezu humanisten oihartzun kaxa lanak egiten dituen aho-tsa, biziki umoretsu ere ager daitekeen gitarra joko sendo batez lagundurik. Ez da kan-tari estandarizatu, parekorik ez duen artista da, nortasun handikoa, publikoarekin ko-munikatzea lehenesten duen horietakoa.

Musika latino, frantziar kantua, gopela, reggae, gaz-teleraz, frantsesez edo inge-lese, oholtzan mugarik ga-beko artista horren zerbitzu-ko diren talentu handiko lau musikaririk laguntzen dute.



Mariane Aya Omac abeslaria.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

BERA
KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

SCOTT **GIANT** **MERIDA BIKES**
ORBEA **BH** **CANON**

Martxoko bozetarako bi taldeak prest dira

Sara Zain eta Har Hitza taldekoek 23 lagunekoz zerrenda bana osatu dute, Laborde eta Alfaro buru dituztela

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 27an finituko da martxoan iraganen diren bozetarako zerrendak aurkezteko epea baina hori baino lehen Har Hitza eta Sara Zain taldeek zerrendak osatu dituzte.

Sara Zain

Azken agintaldietan auzapeza izan den Battit Laborde izanen da Sara Zain taldeko hautagaia. Argazkian ageri diren ordenan, hauek dira gainerako kideak: xutik ezkerretik hasita, Maitxu Arizkoreta, Tati Agesta, Trini Devoucoux, Añi Londaitz, Xan Mixel Jauregi, Fafa Agirre, Pierre Arotzarena, Pierre Hirigoi, Patxi Jauregi, Maritxu Ameztoi, Pantxika Leizagoi, Zofi Garbiso, Pantxika Lastra, Antoanet Goienetxe eta Tomas Lafitte; eta totoriko ezkerretik hasita, Pettan Errandonea, Battit La-

borde, Karmen Errandonea, Matiu Brisson, Esteban Barneix, Mizel Elizalde, Amaia Saint Martin eta Fabríz Iparragirre.

Har Hitza

Ellande Alfaro buru dela, gazte eta helduz osatutako taldea bildu dira Har Hitza taldean. Bere gibeletik honela da zerrenda: Marie Pierre Pradere, Patxi Dutournier, Claire Grillard, Jean Philippe Amorena, Yanaita Araguas, Joanes Garcia Basurko, Solange Mariluz, Michel Gerendiain, Mirentxu Doienhart Bernet, Jon Paterné, Maiana Mendiburu, Guillaume Fagoaga, Mirentxu Ibargarai, Mattin Oronoz, Sabine Endara, Battit Ondikola, Leire Fagoaga, Beñat Blanco, Aline Oronoz, Alexix Belleret, Joana Urbistondo eta Beñat Irazoki.



Goian Har Hitza taldekoak eta behean Sara Zain taldekoak.



Jendeak galdera ainitz egin zituen. GANEX

Herriko eta inguruetako jende ainitz bildu da Larrun Ez Hunkiren biltzarrean

GANEX

Sara, Azkaine, Bera, Urruña, Baiona, Miarritze eta bertze hainbat herritako jende ainitz bildu zen joan den otsailaren 7an Larrun Ez Hunki taldeak deituta Lur Berri gelan egin zen biltzarrean. Joseph Olasok euskaraz, Alain Laffittek frantsesez eta Pantxo Thellerik hartu zuten hitza eta adierazi zuten hitza eta Larhango mazelarako bertze proiektu bat antolatzen ari dira Pauen, «baina ez dute deus ere agertu nahi».

Ustez, bi proiektu izanen dira trenari eta Natura 2000

sareak hartzen duen eremuari lotuta eta bereziki azken horren inguruko galdera ainitz egin zituen jendeak, kezka iturri baita.

Larhunen inguruko proiektua denen ahotan dabil, kasu eman beharko baita zernahi egin ez dezaten eta hala, «orain arte bezala zoragarri atxiki dezagun gure Larhun mazela ederra». Segur jendearen segurtasuna bermatzeko neurriak hartu beharko direla, baina ez gehiagorik.

Larrun Ez Hunki kolektiboaren bilkura zintzur bustitzearekin bukatu zuten.



GANEX

45 bikote mus txapelketan

Sarako Izarra errugbi taldeak antolatutako mus txapelketaren karietara, jende andana hurbildu zen otsailaren 1ean Omordiko gelan. 45 bikoteen artean Peio Iribarren eta Beñat Saint Martin nagusitu ziren (300 euro). Txapelkunorde, berriz, Philippe eta Joanes Lasaga aita- semeak gelditu ziren (100 euro).



Carmelo Mitxelena, semea, erraina eta bilobarekin. Eskuinean, bigarrena, Lesakako taldearekin tiratzen. Beheitian, Karmelo eta Ander aita-semeak txapelketan.

«Lehen eta orain, sokatirak badu zerbait hagitz berezia dena»

AGORTXEBERRIKO MTXELENATARRAK SOKATIRAREKIN LOTUTAKO FAMILIA LESAKAN

Munduko sokatira txapelketan aritzekoak dira Karmelo eta Ander Mitxelena aita-semeak Irlandan. Carmelo, beraien aita eta aitona ere aritu zen Lesakako taldearekin. Sokak ez du etenik.

AITOR AROTZENA LESAKA
Nolako zura, halako ezpala.
Erranairu horrek erranahi osoa hartzen du Lesakako Nabaz auzoko Agortxeberri baserrian, hiru belaunaldi lotzen baititu sokatirak. Carmelo Mitxelena 'aitaxi' Lesakako taldearekin han eta hemen aritu zen XX. mendean. Bere semeak, Karmelo eta Joxe Angel, Nafarroako, Euskal Herriko eta lau aldiz Munduko txapeldun izanak dira Beti Gazterekin. Eta orain, Ander Mitxelena, Carmeloren biloba eta Karmeloren semea, 15 urterekin, Munduko txapelketan parte hartzekoa da Irlandan, aita eta osabarekin batera. Anderrren ama ere, Marta Diaz,

Nafarroako eta Euskal Herriko txapeldun izan zen Berriozar taldearekin.

Carmelo Mitxelena 'zaharrak' ederki gogoan ditu Lesakako sokatira taldearekin 1960. eta 1970. hamarkadetan emandako erakustaldiak eta jokaturako txapelketak. «Pisu librean aritzen ginen herriz herri demostrazioak egiten, Iparraldean udan aunitz. Gizon haundiak izaten ginen, ni ttikixkoena eta ehun kilotik goiti izaten nintzen, zortzieren artean mila kilo hurbil ibiliko ginen, hori seguro!», dio irrika. Elizondo, Doneztebe eta Lesakako taldeekin batera Arabako bat ere aritzen zela gogoan du. Bidasoaldeko txapelketa

bitan ere irabazi omen zuten. Bera mutikoa zenean ere izaten omen zen sokatira taldea Lesakan, «baina lur gainean aritzen zena, futbol-zelaian». Gaur egun, gustuko du semeak eta biloba sokatiran ikustea eta lehengo eta oraingo taldearen artean alde nabarmenak ikusten ditu: «Oraingo taldeak aunitz zaintzen du janaria, guk batere ez; entrenatu ere ez genuen egiten eta tiratzeko orduan, gu hasieratik indarka hasten ginen eta orain eustera joaten dira».

Munduko txapeldun bortzetan
Bere anaia Joxe Angel bezala, lau aldiz Munduko txapelduna izana da Karmelo Mitxele-

na Beti Gazterekin klub artekoan. Lehenbiziko urreak duela 21 urte Irlandan lortu zituzten (560 kilotan irabazi zuten orduan Corken) eta Irlandarako bidean, zikloa borobiltzeko berriz ere munduko txapeldun izateko itxaropenez da. «Taldea polita egina dugu, kosta zaigu, baina beteranoak eta gogoz dauden eta hagit ongi ari diren gazteak elkartu gara eta pixkanaka hobetzen ari gara. Hamabi urteko geldialdiaren ondotik 2016an bueltatu ginen mundialera, baina orduan dominatetik urrun ibili ginen. 2018an ez ginen Txinara joan, diru-kontuak zirela-eta. Irabaztea zaila da, baina ongi ibiltzeko esperantza badugu aurten», dio Agortxeberrikoak.

Nazioarteko txapelketan ere urrezko domina bat lortua du Karmelo Mitxelena, 1995ean Gasteizen jokaturako Munduko txapelketan selekzioarekin aritzeko aukera eskaini baitzion Gaztedik 640 kilokoan. «Aurten Beti Gaztek Euskal Herria ordezkatzeko eskubidea irabazia du eta handia izanen litzateke nazioartekoan ere txapeldun suertatzea».

Azkeneko urrezko domina 2004an Eskozian, Glasgown lortu zuen Beti Gaztek, 600

kilokoan. Orduan jakinarazi zien Karmelok taldekideei familiaren esperoan zegoela eta hamasei urte beranduago semearekin mundialera bueltatzea hagitz berezia da: «Egia da harrotasunez betetzen nauela, kontent nago eta ez da kezka handiagoa neretzat, Anderrek berak aukeratu duen zerbait da, ez nik eskatutakoa, ongi ikasten ari da eta berea emanen duela badakit».

Mundialeko gazteena

Zer ikusi, hura ikasi. Ander Mitxelena Diazek ttikitatik izan du sokatirako afizioa eta umetatik aritu da taldea laguntzen, botillero... Aurten, lehen aldiz tiran ere aritu da, bai Nafarroako baita Euskal Herriko txapelketan ere eta «sentsasio onak izan ditut, esperientzia handiko taldekideekin aritzea beti errazagoa da». Berriozarko taldearekin *utzita* ere aritu da 600eko txapelketan eta aitaren eta osabaren kontra tiratzea suertatu zaio. Ez da horregatik kikildu, eta «orduan eta gogo gehiagorekin» tiratu duela dio bere aitak. 15 urterekin bere lehen mundialean parte hartzeko aukera izanzen du eta Euskal Herriko 23 urtez beheitiko selekzioarekin arituko da, 600 kiloko kategorian: «Erdiak nafarrak gara eta bertze erdiak bizkaitarrak». Seguruenik txapelketako tiralari gazteena izanen da, baina horrek ez dio kezka berezirik eragiten. Familia osoa Letterkenny aldera joatekoa da, tartean Marta Diaz, Anderren ama ere: «Nafarroako eta Euskal Herriko txapelen bat irabazi nuen Berriozarrekin. Oroitzapen onak ditut, baina ez nintzake bueltatuko erotuta ere. Senarra eta semea ikustearekin, aski!».

«IRABAZTEA ZAILA DA, BAINA ONGI IBILTZEKO ASMOZ GOAZ IRLANDARA»



Munduko txapelketan izanen diren Beti Gazteko tiralariak. Karmelo eta Ander Mitxelena aita-semeak falta dira. A.AROTZENA

Munduko sokatira txapelketarako bidean da Beti Gazte

Otsailaren 20tik 23ra lehiatuko dira Lesakako taldeko neskek eta mutilak Irlandako Letterkenny hirian



AITOR AROTZENA LESAKA

Otsailaren 20tik 23ra munduko sokatira txapelketa jokatu da Irlandako Letterkenny hirian eta dominen borrokan lehiatzeko itxaropenez abiatu dira Lesakako Beti Gazteko sokatira taldekoak. Joan den urte hondarrean launakako txapel guztien jabe egin ondotik, Euskal Herriko zortzina-kako txapelketan ere lan bikaina egin dute. Hau idazterakoan, mutilek 680, 640 eta 600 kiloko txapelak irabaziak dituzte eta neskek 540 kiloko. Larunbat honetan jokatzeko 560 kiloko txapelketa eta neskek 500 kiloko hirugarren eta azken jardunaldia eta igandean, berriz, Ezkabarten zuten txapelketa mistoa, 580 kilotan.

Ongi prestatzen ari direla jakitun eta txapelek ematen duten sendotasunarekin, Ir-

landan ere lan ona egin asmoz joan dira. Mutilek badakite zer den munduko txapeldun izatea: hain zuzen Irlandan, Carlow hirian lortu zuten lehen aldiz 1999an. Urtebete beranduago Herbeheretako Slagheremen eta eta 2004an Glasgown (Eskozia) klub artekoan txapeldun izan zen Beti Gazte. Beteranoenek, beraz, badakite zer den sentsazio eder hori, baina gazteak ere dastatzeko gogoz daude. Emakumeek 2010ean Cesenatico (Italia) parte hartu zuten lehen aldiz munduko txapelketan eta laugarren postua eskuratu zuten, 540 eta 500 kiloko kategorietan. Talde hartatik Karmele Pika-beak bakarrik segitzen du.

Klub artekoan ez ezik, nazioarteko txapelketan ere Euskal Herria ordezkatzeko eskubidea dute aurten Lesakako klubeko neska-mutilek.

BETI GAZTE SOKATIRA 2020

- Eneko SALDIAS OTXOTORENA SARASATE
- Beñat ORDOKI TELLETXEA LESAKA
- Beñardo YANCI MITXELENA LESAKA
- Jose Angel MITXELENA MITXELENA LES.
- Mikel APEZTEGIA MENDIBERRI LES.
- Oskar TELLETXEA MARTIARENA IGANTZI
- Dominique ERRANDONEA EZPELETA
- Julen PALENZUELA ETXEPARE LES.
- Gerardo TELLETXEA AIZPURU LESAKA
- Karmele PIKABEA BALEZTENA SALDIAS-LESAKA
- Maria YANCI IRIGOIEN IGANTZI
- Irantzu GOIENETXE BATIZ LESAKA
- Aitziber GOIENETXE BATIZ LESAKA
- Kristiñe TXOPERENA IRIBARREN LES.
- Udane ARBELAITZ MATEO OIARTZUN
- Guy LARRALDE EZPELETA
- Unai GURRUTXAGA ERRANDONEA LES.
- Ane GURRUTXAGA ERRANDONEA LES.
- Amaia LEIZA IGARTZABAL LESAKA
- Oihana MINDEGIA GOÑI AURTITZ
- Udane LOIDI LABANDIBAR OIARTZUN
- Iñigo ALZUGARAI LEGAZKUE LESAKA
- Maialen LOPEZ TAPIA LESAKA
- Airitxu MUXIKA CARRION LESAKA
- Ainhoa UBIRIA SARASOLA LESAKA
- Paskual TABERNA ZUBIRIA LESAKA
- Karmelo MITXELENA MITXELENA LES.
- Ander MITXELENA DIAZ LESAKA



Nerea Sorondo eta Maika Ariztegi lehia, Abadiñoko saioan. Ondoan, Larrañaga eta Jon Rekondo, finalerako txartela eskuratu zutenean Beasainen. EGURSPORY



Urrezko Aizkorako finala martxoaren 7an Azpeitian prest

Jon Rekondok eta Nerea Sorondok lortua dute txartela eta Maika Ariztegi edo Itxaso Onsalo ere bertan izanen dira

TTIPI-TTAPA

Urrezko Binakako Aizkolarari Txapelketa Eusko Label Sari-ko finala Azpeitiko (Gipuzkoa) Izarraitz pilotalekuan jokatu-ko da martxoaren 7an (18:30). Finalistak, berriz, Iker Vicente eta Jesus Mari Mujika, Ugaitz Mugertza II.a eta Julen Alberdi *Txikia IV.a* eta Mikel La-

rrañaga eta Jon Rekondo leitzarra izanen dira.

Emakumeak banaka

Emakumezkoak ere banaka lehiatuko dira. Hau idazterakoan, Berako Nerea Sorondok eta Zeanuriko Irati Astondoa bizkaitarrak lortua zuten finalerako txartela eta hiruga-

rrena, igande honetan jokatze-koa zuten Oñatin (Gipuzkoa) Maika Ariztegi iturendarrak eta Aresoko Itxaso Onsalo.

23 urtez behetikoa

Gazte mailako finalean, 23 urtez behetikoa izanen diren hiru bikoteak jakiteko kanporaketa ere jokoan zen igandean Oñatin, eskualdeko kirolaririk gabe: Jokin Urretabizkaia *Bazozabal* eta Julen Larrea III.a, Ioritz Gisasola *Zelai IV.a* eta Suharri Rodriguez, Hodei Ezpeleta eta Unai Zabala eta Oier Kañamares IV.a eta Xuban Kañamares V.a arituko dira. Sei enbor moztu beharko dituzte, bi modalitatetan (erlojuaren kontra eta lan erdira).

Harri-jasotzaileak

Urrezko Harri-jasotze txapelketako jardunaldian, nahiz eta finalean ariko diren hiru harri-jasotzaileak erabakiak egon, sailkapen orokorrean ahalik eta goitien gelditzeko lehia aritzekoak ziren Oñatin Aimar Galarraga eta Urdax Magunazelaia. Izan ere, sailkapeneko lehenbizikoak finalean azkena altxatzeko eskubidea izanen du eta horrek abantaila ttiki bat emanen dio. Hau idazterakoan, dagoekeno finalerako sailkatuak daude Xabier Peña (4.175 kilo), Urdax Magunazelaia (3.800 kilo) eta Aimar Galarraga (3.350 kilo). 175 kiloko laukizuzenarekin, 150 kiloko kubikoarekin eta 125 kiloko bolarekin ariko dira.



UTZITAKOA

Ane Eltzaurdia garaile Hiru Herri Trailen

Hiru Herri atletismo taldeak bigarren urtez antolatutako Hiru Herri Trail mendi lasterketa egin zuten otsailaren 9an, Uhartan hasi eta bukatuz. 18 eta 8 kilometroko ibilbideak zituzten aukeran eta ibilbide laburrean, Manttale taldeko Ane Eltzaurdia beraterra nagusitu zen (45:08).



UTZITAKO ARGAZKIA

Hodei Lujanbio bigarren Negu Trailen

Podiumera igoz hasi du mendi lasterketen denboraldia Hodei Lujanbio goizuetarrak. Berastegiko (Gipuzkoa) Negu trail lasterketan parte hartu zuen otsailaren 2an eta bigarren postuan bukatu zuen lasterketa. Iñaki Olano altzotarra (1.24.05) soilik izan zuen aurretik Lujanbiok (1.26.03).



Alunda eta Urtasun txapelkunak, Ourkia eta Usarralde txapelkunorde. UTZITAKOIA

Alunda eta Urtasun Euskal Herriko txapelkun paxakan

Lehen mailako txapelketako finala irabazi zion Laxoa Elkarteko bikoteak Urruñako Ourkia eta Usarralderi

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Laxoa Elkartearentzat garaipen historikoa lortu dute Aritz Alunda arraioztarrak eta Gorka Urtasun iruritarrek. Lehen aldiz, Euskal Herriko lehen mailako paxaka txapelketaren finalerako txartela lortu zuten eta, gainera, finala irabazi zuten otsailaren 9an Zuraiden. 13-9 irabazi zieten Urruñako Cristian Ourkia eta Olivier Usarralderi.

Lehenbiziko fasean Urruñakoek 13-6 irabazi zieten baztandarrei, baina Laxoa Elkar-

tekoek bazuten itxaropena finalean kontuak aldatuko zirela. Lehia gogorra izan zen eta horren erakusgarri finaleko lehenbiziko jokoak: 15 minutu behar izan zuten urruñak irabazteko eta bigarren ere beraientzat izan zen. Zortzinako berdinketara bitarte ezin parekatuago ibili ziren (3-2, 3-3, 4-4, 6-4, 6-7, 7-7, 8-8), baina lau joko segidan eginez (12-8) hautsi zuten lehia baztandarrek, azkenean 13-9 irabazteko, ordu eta erdiko lehiaren ondotik.

Lehendik ere arituak dira Laxoa Elkarteko pilotariak Euskal Herriko paxaka txapelketan. Bigarren mailako txapelketa ere irabazi zuten duela urte batzuk Irurritako Oskar Urrutiak eta Guillermo Etxenikek. Baina lehen aldia izan da, lehenbiziko mailako txapelketaren finalera ailegatu eta irabazten dutela.

Aurten bi bikote

Baztan Errekako Paxaka txapelketa abenduan bukatuta, Laxoa Elkarteko bi bikotek Euskal Herriko Paxaka txapelketan parte hartu dute.

Laxoa Elkartek antolatzen duena ezker paretako pilotalekuan hiruak jokatzeko bada, Euskal Herriko binaka trinketetan, gehienbat Iparraldekoetan jokatu da. Laxoa Elkarteko bi taldeek etxeko partidak Elizondoko Antxitonea trinketean jokatu dituzte.

Erratzuko Manu Irigoien eta Irurritako Egoitz Prim (Elizondoko Juan Mari Maia ere aritu da) bigarren mailan aritu dira. Lehenbiziko fasea erraz gainditu ondoren, final laurdenetan Senpereko S. Etcheverry eta P. Benjamin bikotearen kontra 9 eta 13 jokoz galdu zuten.

Aritz Alunda arraioztarrak eta Gorka Urtasun iruritarrek, berriz, lehenbiziko mailako finaleko txartela eskuratu zuten Azkaineko trinketean final erdiko partidaren Senpereko Iciaga anaien kontra 13 eta 10 irabazi ondoren.

Niko Mindegiak Bidasoa Irunen kontra jokatu du Txapelkun Ligan

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Mundu mailan eskubaloi jokari ezaguna da gaur egun Niko Mindegia (Doneztebe, 1988). Umetan herriko Erreka eskubaloi taldean jokatu ondotik, abudo hartu zuen Iruñerako bidea, Portland San Antonio fitxatu baitzuen eta Anaitasunan ere aritu zen utzita. Geroztik, hainbat herrialdetako taldeetan jokatu du (Espainiako Naturhouse La Rioja, Hungariako Pick Szeged, Danimarkako Kolding eta Frantziako Chambéry Savoie eta, gaur egun, Poloniako Wisła Plock), baita nazioarteko partidak ere Espainiako selekzioarekin, 23 alditan. 2013-14 denboraldiko EHF Kopa irabazi zuen Pick Szeged taldearekin, 2019ko Frantziako Kopa Chambéry taldearekin eta zilarrezko domina lortu du Espainiako selekzioarekin 2016ko Europako txapelketan.

Hain zuzen, Mindegia berriz ere Bidasoaldean jokatzeko aukera izanen dugu. Txapelkun ligan, Wisła Plock eta Irungo Bidasoaren arteko kanporaketa suertatu baita otsailean. Hilaren 22an, larunbatean 15:00etan Polonian eta hilaren 29an Irungo Artalekun (16:00) jokatu dituzte partidak.

Malerrekako eskuz binakako 18. pilota txapelketaren finalak larunbat honetan

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Erreka elkartek antolatutako Malerrekako eskuz binakako XVIII. pilota txapelketako finalak otsailaren 22an jokatu dituzte, larunbat goizean Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Hauek izanen dira azken norgehiagokak:

Benjaminak: Iparragirre eta Tejeria (Aduna) – Sarriegi eta Landa (Lapke)

Alebinak: Alberdi eta Izagirre (Ataun) – Gaztañaga eta Beroz (Gazteleku)

Infantilak: Sanchez eta Antimasberrez (Barañain) – Etxeberria eta Leonet (Oiarpe)



Sariak izanen dira pilotarientzat.

Kadeteak: Amiano eta Elola (Tolosa) – Irribarria eta Garcia (Lapke)

Jubenilak: Mitxelena eta Aburuza (Oiarpe) – Peso eta Petite (Barberito I.a)

Bigarren mailako seniorrak: Txoperena (Oberena) eta Gurrea (Larraun) – Jamar eta Cordon II.a (Oberena)

Senior elite: Astiz eta Otxandorena (Buruzgain) – Iriarte eta Gaskue (Buruzgain)

OTSAILAK 20 - MARTXOAK 5

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

ELIZONDO

Sahararen aldeko dokumentala eta solasaldia

Aitzinetik elkarretaratzea plazan. Arizkunengan, otsailaren 28an, 19:00etan.

BERA

'Zazpiak bat: Euskal Herriko armarriaren historia'

Beralandetan, otsailaren 28an, 19:00etan.

ZUGARRAMURDI

'Euskaratik feminisमत eta feminisमतik euskararat'

Sorginen Museoan, otsailaren 28an, 20:00etan.

ETXALAR

Altxata elkarteko batzarra

Kultur etxean, otsailaren 29an, 19:30ean.

IKUSKIZUNAK

LEITZA

'Zauria(k)' dokumentala

Atekabeltzen, otsailaren 20an, 18:30ean.

DONEZTEBE

'Paperezko hegazkinak' eta 'La familia Adams' filmak

Zineman, otsailaren 23an, 16:30ean (euro bat) eta 18:30ean (bi euro), hurrenez hurren.

LESAKA

'Ernest eta Cellestine'

Harriondoan, martxoaren 1ean, 16:30ean.

GOIZUETA

Helduentzako ipuin kontaketa musikatua

Amaia Elizagoienen eskutik. Ganbaran, martxoaren 7an, 17:00etan.



ARTXIBOKOA

ESKUALDEA Inauteriak

Eskualdeko hainbat herritan inauteriak ospatuko dituzte otsail bukaeran eta martxo hasieran.

LEHIAKETAK

LEITZA

Balikebale lehiaketa

Apirilaren 3an. Izen-ematea: otsailaren 28a arte.

TAILERRAK

ELIZONDO

Hika ikastaroa

Euskaltegian, martxoaren 25era arte, asteazkenetan, 18:00etatik 20:30era.

BERA

Helduentzako dantza garaikide tailerra

Otsailaren 29an, goizez (dohainik).

KONTZERTUAK

SUNBILLA

Abesbatzaren kontzertua

Elizan, otsailaren 22an, 20:00etan.

BERA

Lukiek taldea

Katoku ostatuan, otsailaren 29an.

OIZ

Malerreka Kantuz

Martxoaren 7an, 12:00etan.

DANTZAK

LESAKA

Beti Gazte taldearen emanaldia

Plazan, otsailaren 22an.

IRURITA

'Izarrak'

Pilotalekuan, otsailaren 29an, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

LEITZA

'Erresistentzia feminista' erakusketa

Atekabeltzen, martxoaren 15era arte.

AZOKAK

BERA

Bertako produktuen azoka

Beralandetan, 2. larunbatetan, 10:30etik 13:30era.

IRTEERAK

LEITZA

Altzegi-Urepel-Mandoegi

Otsailaren 29an.

ELIZONDO

Sagardotegira

Izen-emate epea: otsailak 29. Mendi ostatutik abiatuta, martxoaren 14an.

Aizkolegira

Plazatik abiatuta, martxoaren 1ean, 07:30ean.

ETXALAR

Sagardotegira

Martxoaren 7an.

DONEZTEBE

Xabierrera

Errekak antolatutako irteera. Izen-ematea: 20 euro (Errekako bazkideek 15). Martxoaren 14an.

OSPAKIZUNAK

NARBARTE

Inauteriak

Otsailaren 21ean eta 22an.

GARTZAIN

Inauteriak

Otsailaren 21ean eta 22an.

LEKARUZ

Inauteriak

Otsailaren 21ean eta 22an.

IRURITA

Inauteriak

Otsailaren 21ean eta 22an.



TELLETXEA

LESAKA Beti Gazte dantza taldearen emanaldia

Lerro-dantzak dantzatuko dituzte.
Plaza zaharrea, otsailaren 22an.

ETXALAR Inauteriak

Otsailaren 20tik 25era.

LESAKA Inauteriak

Otsailaren 20tik eta 23ra.

Arbolaren Eguna

Otsailaren 22an.

ELIZONDO Inauteriak

Otsailaren 21ean eta 22an.

DONEZTEBE Inauteriak

Martxoaren 21ean eta 22an.

ANIZ Orakunde Eguna

Otsailaren 22an.

BERA Inauteriak

Otsailaren 20an, 23an eta 24an.

GOIZUETA Inauteriak

Otsailaren 23tik 25era.

URDAZUBI Inauteriak

Otsailaren 23tik 25era.

LEGASA Inauteriak

Otsailaren 28an eta 29an.

SALDIAS Inauteriak

Otsailaren 29an.

SUNBILLA Arkupeak elkarteko kideen bazkaria

Martxoaren 8an.

BERTSOA

ANIZ Bardoak finalurrekoa

Mendiarte kultur etxean,
otsailaren 29an.

GOIZUETA Bardoak txapelketako finalurrekoa

Ganbaran, martxoaren 14an,
18:00etan.

Nire aukera

«Emandako pausoaz eta gizonezkoek egindako harreraz harro nago»

NAGORE MADARIAGA SUNBILLAKO GAZTEA

«Astegunez gestoria batean eta asteburuetan, tarteka, Dantxarinero benta batean» lan egiten du Nagore Madariagak (Sunbilla, 1995). Lanetik ateratzen denean, «kirola egiteko eta familiarekin edo lagunekin egiteko» denbora hartzen du. Momentuak batzuetan, egunak bertzeetan. Izan ere, «bidaiatzea eta esperientziak bizitzea» du zaletasun eta horretarako denbora gehiago behar izaten du. Esperientzien motxila betetzeko, ordea, ez du beti urruti joan beharrik. Berriki, inauterietan, egundaino egin ez dutena egiteko aukera izan du: «emakumezkoak aurtan eskean atera gara lehendabizikoz. Orain artean ez ginen ateratzen». Ez da



di-da hartutako erabakia izan: «gure artean urtero nolabaiteko eztabaida izaten genuen... denbora pasatu ahala atzenduz joan ginen, eskea emakumezkoen afariarekin ordezkatzuz... baina probatzeko gogoia bizi genuen. Beti kikildu egiten ginen deus errateko...». Galdetzeak baino kezka handiagoa eragiten zien erantzuna aditzeak: «herritar

batzuk eskean ateratzearen kontra egonen zirela uste genuen...». Usteak ustel izan omen dira: «aipatu genien momentutik, mutilek hagitz ongi hartu zuten eta anitz lagundu ziguten». Horri esker, eroso ibili omen dira: «bizi guzia eskean ibili izan bagina bezala». Taldean eta herrian «babes handia» jaso dute: «hainbat etxetan zoriondu egin gintuzten. Etxe batean emakumezko batek beti inauterietako eskean atera nahi izanagatik ezin izan zuela kontatu zigun. Orain behintzat bere bilobak atera ahal izanen direla...». Aukera izatea ez da gutxi eta aukerak izateko ateak ireki dituzte aurtan. Ez dute aisa ahantziko eman duten pausoak: «inauteriez oroitzean egindakoaz eta mutilek eskainitako harreraz harro sentituko naiz». Kuadrilla eta adin anitzetako «hamaika neska» izan dira aurtan parte hartu dutenak. Ez dira mutilak adina izan, baina lehendabiziko urtea izateko «kuadrilla ederra» bildu da. Ikusiak ikusi, inauterietan ere berdintasuna lortzeko, eta «parekatzeko» itxaropentsu dago Madariaga: «urte batzuen buruan, neska eta mutilak 16 urte betetzean denak elkarrekin eskean ateratzen segitzea espero dut».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500 m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenbiziko solairuan, erdigunean kokatua, Altzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukaldea estreinatu gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎608 77 79 26.



LESKA. Elizagibela 3. zenbakian, Mairuerregenea etxea salgai. 3 solairu, 110 m² bakoitzeko. Banaketa horizontala. 3 aparkaleku aitzinean eta gibelean 700 m²ko partzela. 345.000 euro. Eskaintzak onartuko dituzte. ☎652 43 90 30.


BERA. Eztegarra karrikan, Ezkerrekoa etxean pisua salgai. 72m² ditu, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela bainugela eta trasteleku ederra. Sukaldea eta logela hegoaldera begira. Pasiloan paretako armairu ederra. Igoailua, gas naturala, PVC leihoak, berogailua. Deitu 12:00etatik 13:00etara. ☎636 58 10 66.

DONEZTEBE. 102 m²ko pisu berria salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Ganbara eta igogailuarekin. Garajea ere bai. ☎669 08 01 61.

IGANTZI. Baserrria bere lur eremua-rekin salgai. ☎646 38 25 30.

ERRENTAN EMATEKO

LESKA. Lagun batentzat logela errentan emateko. ☎678 85 50 56.



LESKA. Logela bateko apartamentu dotorea errentan emateko. Erdigunean, mobleztatua eta trasteleku handiarekin. 470 euro. ☎657 70 89 42.

ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKA. Pisu bat errentan hartu nahi dute. ☎600 64 34 60.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

Erizain patek pisua, **apartamentua, etxea edo baserrria** errentan hartu nahi du. 500 euro ordaintzeko prest. ☎693 69 49 76.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO



ELIZONDO. Santiago karrikako 58. zenbakian, 40 m²ko lokal komertziala errentan emateko. Toki aproposa klase partikularrak emateko, bulego,

kontsulta edo edozein negozio tiki jartzeko. ☎663 07 97 62.

DONEZTEBE. Denboraldi baterako Osasun zentroaren pareko kafetegia errentan emateko, bezero dezente-rekin. ☎619 91 33 75.

BERA. Iparralde karrikako 1. zenbakian 40 m²ko lokal komertziala errentan emateko. Komuna dutxa eta guzti. ☎608 77 79 26.

LURRAK/ORUBEA

SALGAI

BAZTAN. Etxebizitza berri bat egiteko balio duen lurzorua salgai, 10.000 m² pasatuxekoa, lurrita eta Ziga bidean. Paraje lasai eta ederra. ☎669 00 62 38 (Whatsapp ez mezuak ere onartzen dituzte).

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 140,00
- Idixkoak 180,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,65/6,25
- 8-10 kilokoak: 4,60/5,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 74 €

Zerri gizona 1,424 €

Zerramak 0,800€/kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (urtarrilaren 17tik otsailaren 7ra bitarteko prezioak)

LANA

ESKAITZAK

BERA. Zalain jatekxan esperientzia pixka bat duen zerbitzaria behar dute. ☎617 72 34 75.

ZUGARRAMURDI. Ostatu batean sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dituzte. ☎948 59 90 82 (goizez).

BERA. Laguntzailea-harreragilea behar dute. 25-40 urte ingurukoa, arduratsua, atsegina, dinamikoa eta jende aitzinean eta taldean lan egitea gustuko duena. Bidali curriculum (gaztelaniaz): bera.quirovital@gmail.com. Berehala hasteko; lanaldi erdian: astearte eta ortziraletan egun osoan eta ortzegunetan arratsaldean.

ETXALAR. Hotelean asteburuetan, besta egunetan eta udan lan egiteko zerbitzariak behar dituzte. Bidali curriculumak info@etxalar.com helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatekxan langilea behar dute zerbitzuan lan egiteko. Frantses pixka bat jakitea beharrezkoa da. ☎948 59 90 09 / 948 59 91 46.

BERA. Larungo benta batean frantses pixka bat dakien pertsona bat behar dute apiriletik urrira lan egiteko. ☎607 56 60 22.

ESKARIAK

Emakumezko bat lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzen esperientzia duena. Interna moduan, orduka... aritzeko prest. ☎634 91 44 78.

Adinekoak zaintzen ibilia dena, edozein lanpostutan aritzeko prest: zaintzan, garbiketara... interna edo externa moduan. ☎632 43 18 98.

Lan bila. Bi urtez emakume bat zaintzen aritua eta umeak zaintzen eta garbitasunean ere ibilia. ☎631 24 61 39.

Adinduak zaintzen, etxeak garbitzen eta sukaldari laguntzaile bezala esperientzia duen emakumezkoa, edozein lanetan aritzeko prest. ☎644 93 62 74.

Ostalaritzan ibilitako gizonetako lan bila; sukaldari laguntzaile moduan eta zerbitzari moduan ere aritua. Eraikuntzan eta abeltzaintzan ere esperientzia duena. Edozein lanetan aritzeko prest. Frantsesa dakiena. ☎644 49 13 31.

37 urteko emakumezkoa lan bila. Interna edo externa, adineko emakumeak edo haurrak zaintzen edo zerbitzari bezala lan egiteko prest. Antzeko lanetan esperientzia duena. Lanean berehala hasteko prest. ☎677 24 93 27.

Adinduak zaintzen eta garbiketa lanetan ibilitako emakumezkoa interna moduan edo orduka lan egiteko prest. ☎644 51 33 79.

Mutil gaztea lan bila. Adinduak zaintzen esperientzia duena baina edozein lanetan aritzeko prest. ☎677 32 79 57.

Adinduak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Edozein arlotan lan egiteko prest. Interna moduan lan egiteko aukera. ☎697 97 86 83.

MALERREKA eta BAZTAN en eskualdeko emakumezko bat lan bila. Adinekoak edo bakarrik daudenak zaintzen esperientziaduna. Etxeko lanetarako ere prest. Egun osoan lanerako aukera. ☎658 52 76 47.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

Ingeles-eskolak etxez etxe eskaintzen dira. Orduetgia aukeran. 12 euro orduko. ☎603 62 58 07.

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

DENETARIK

Yoga-irakasleak klaseak eskaintzen ditu etxez etxe. Klase bakoitzeko prezioa 12 euro. ☎603 62 58 07.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Hiru txakurkume oparitzeko. ☎661 90 50 09.



Zakurkumeak oparitzeko, mastin eta collieren arteko nahasketa. ☎663 22 50 65.

SALGAI

Urte bateko txakurra salgai. Mes-tizoa, Border Collie eta artzain txakurrarena. Txertoak emanak ditu eta txiparekin. ☎616 16 48 47.

MOTORRAK

TAILERRAK



DENETARIK

SALEROSKETAK

ETXALAR. Belar fardo tikiak salgai. ☎618 96 27 74.



Bi ate beiradun salgai (725 mm x 2025 mm x 35 mm). Binilozko zuri lakatua. Estreintatu gabeak eta burdingirik gabe. Banaka ere eros daitezke. ☎688 62 65 72 / 639 47 43 53.



Binilozko lurzorua salgai, zokaloa eta isolatzailea barne. Guztira 10 kaxa eta kaxa bakoitzeko zortzi lama (1,66m² kaxako). Ikatz kolorekoak. Neurriak: 17,1 cm x 121,2 cm. Lodi-erria: 5 mm-07mm. ☎688 62 65 72 / 639 47 43 53.



Canon 1200D argazki kamera salgai, ongi zainduta. Kamerarekin batera 18-55 mm-ko objektiboa sal-

gai, baita kargagailua eta bateria ere. ☎600 88 28 69 / 948 63 11 74.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Toki Ona institutuko aparkalekuan kartera bat aurkitu dute. ☎948 62 50 00.

Sampi Aragón



VOLKSWAGEN AMAROK 3.0 TDI
4MOTION 163CV. KMO



FORD FIESTA 1.25 TREND 82CV.
75.000 KM



FORD RANGER 2.2 TDCI
DOPPELKABINE 4X4 160CV. KMO

DONEZTEBE | 948 450 354
administracion@arincar.com - www.arincar.com

RENAULT
Estreintatu gabea

CLIO ZEN TCE 100 CV
14.100 euro - 0 km - Sus. finan. lotu.

RENAULT MEGANE 1.5 DCI 110 CV
13.500 euro - 2016 urtekoa - 54.000 km
www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE · T. 948 450 282 · doneztebe@red.renault.es

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

1.800€

2.000€

2.500€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

SARRERAK eta BOLETOAK egiten ditugu

(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com

OROIGARRIA



Atautxi Joxe

Bizibordako etxian sortu eta hazia Lopetxenera jaitsi eta bertziri eman bizia hainbat seme alaba zure eskutik hezia artzai bikaina zinen ta oso gizon berezia.

Lanean bizkorra eta oso segalaria joarea zeneukana bizia bezain maitia. Besarkazazu aspaldi falta duzun andria zure babesleku izan bedi betiko Mendaur azpia.

Zure biloba eta birbilobak

URTEURRENA

**Antonia
GOLDARAZENA OTEGI**

Lesakan, 2013ko otsailaren 16an
VII. urteurrena

Ama zenbat egin duzun gugatik orain ere laguntzen ari zara zerutik zutaz oroitzean negarra heldu zait bi begietatik mila esker ama, bihotz-bihotzetik.



ZURE FAMILIA, AGUR ETA IKUSI ARTE

OROIGARRIA

**Milagros
SANTESTEBAN ELIZONDO**

Etxalarren, 2020ko otsailaren 2an,
90 urte zituela

Eskerrik asko Milagros eta gure ondoan egon zareten guztiei.




FAMILIA

URTEURRENA

**Xeli
ETXEBERRIA IGUZKIAGIRRE**

Igantzín, 2019ko otsailaren 24an
I. urteurrena

Dagonko urtia juan da bino zuk utzitako argiak gugan segitzen du, izarrik distiratsuen a balitz bazala. Beti gurekin izanen zara.



ITXEKUK

OROIGARRIA

Beatriz MANTEROLA PETRIRENA

Sunbillan, 2020ko otsailaren 10ean,
84 urte zituela

Joan egin zara amatxi maitea. Beti izan zara bizitzako borrokalaria, indartsua, familiarengatik dena egin eta eman zenuen. Beti maite eta miretsiko zaitugu. Azken momentura arte borrokatu zenuen, beti izanen zara gure borrokalari handia... Zure borondatea betetzeko dena egiten ari gara. Goian bego Beatriz maitea. Jainkoak bedeinka zaitzala. Amen.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**M^a Victoria
IBARRA AGESTA**

Sunbillan, 2018ko otsailaren 22an
II. urteurrena

Bi urte pasatu diren arren, ez da egunik zutaz oroitzen ez garenik.



ETXEKOAK

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandía, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**


**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

HERIOTZAK

- **Anuta Utan**, Berakoa, urtarrilaren 28an.
- **Fermin Etxegarai Gainza**, Berakoa, urtarrilaren 29an, 88 urte zituela.
- **M^a Esther Unzalu Alkai**, Berakoa, urtarrilaren 30ean, 89 urte zituela.
- **Angela Dainciart Irigoien**, Urdazubikoa, urtarrilaren 31n, 84 urte zituela.
- **Vicente Sein Sansiñena**, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 31n, 79 urte zituela.
- **M. Carmen Ozkoidi Iparragirre**, Berakoa, urtarrilaren 31n, 75 urte zituela.
- **M^a Felisa Cincambre Jaurena**, Arizkungoa, otsailaren 1ean, 79 urte zituela.
- **Juan Apezetxea Zubiri**, Goizuetakoa, otsailaren 1ean, 87 urte zituela.
- **M^a Pilar Arratibel Lujanbio**, Goizuetakoa, otsailaren 1ean, 77 urte zituela.
- **Milagros Santesteban Elizondo**, Etxalarkoa, otsailaren 2an, 90 urte zituela.
- **Rosario Galarregi Apeztegia**, Sunbillakoa, otsailaren 4an.
- **Rafael Fernandez Millan**, Lesakakoa, otsailaren 5ean, 82 urte zituela.
- **Jose Joakin Elizalde Jaunarena**, Iturengoa, otsailaren 5ean, 91 urte zituela.
- **Manuel Elizalde Alsua**, Goizuetakoa, otsailaren 6an, 89 urte zituela.
- **Luis Mari Andueza Agara**, Arantzakoa, otsailaren 6an, 55 urte zituela.
- **Juan Andres Jaurena Ainzinena**, Gartaingoa, otsailaren 8an, 79 urte zituela.
- **Maria Jesus Elgorriaga Korta**, Berakoa, otsailaren 9an, 81 urte zituela.
- **Josefina Sagardia Alzugarai**, Lesakakoa, otsailaren 9an, 90 urte zituela.
- **Beatriz Manterola Petrirena**, Sunbillakoa, otsailaren 10ean, 84 urte zituela.
- **Jesus Deskarga Bengotxea**, Eratsungoa, otsailaren 11n, 86 urte zituela.
- **Isabel Oskoz Iñarra**, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 12an, 95 urte zituela.



Ibai Mendizabal Maiz arantzarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 19an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guziaren partetik.



Igantziako **Oier Laka** eta **Kemen eta Oihan Telletxeak** otsailaren 4an, 11n eta 23an, 11 urte beteko dituzte!!! Zorionak eta aupa *otsaildarrak!!*



Eneko Telletxea San Sebastianek 3 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak!!!! Jarraitu beti bezain alai eta berritsu!!! Muxu haundi bat!!!!



Maddi eta **Aitor Baleztena Truebak** 6 urte beteko dituzte otsailaren 26an. Zorionak Eratsun, Doneztebe eta Arantzako familiaren partetik.



Naiara Mendiburu Andresenak otsailaren 27an eta **Iradi Arteaga Andresenak** marxoaren 1ean urteak beteko dituzte. Zorionak eta besarkada potolo bat zuendako Legasako familiaren partetik. Muxuak!!!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu zure ingurukoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitez ТИПІ-ТІПАГЕН bulegora edo bidali argazkia eta testua: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

SORTZEAK

- **Amberly Sanz Zamora**, Doneztebekoa, urtarrilaren 26an.
- **Araitz Atorrasagasti Monte**, Lesakakoa, urtarrilaren 27an.
- **Manex Errandonea Etxart**, Sunbillakoa, urtarrilaren 27an.
- **Nahize Hernandez Zubiria**, Lesakakoa, urtarrilaren 31n.
- **Arane Apeztegia Arretxea**, Sunbillakoa, otsailaren 2an.

EZKONTZAK

- **Evaristo Telletxea Grajirena** eta **Elisabeth Jaukikoa Orbaiz**, NARBARTEKOAK, otsailaren 8an, Oieregin.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

PLAZAN BAZAN




HAU HOTZA!

Pelloziriren lagunak jantzi mordo bat jarriko du soinean, kanpora ateratzeko. Zer da justuki, jantziko duena? Aukeratu dituen jantziak eta osagarriak biribildu itzazu, ondoko orrialdean ageri den gisan agertu dadin.



SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, OTSAIL hitza osatzen duten hizkiak (O, T, S, A, I eta L) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



HAMAIKA

... Bai, arrazoi duzue.
 Eskolako bazkaria ez da beti
 gustukoena izaten.
 Alde ederrekoak izaten dira
 amatekroketak!
 Baina ahaztu hori, eta
 bila itzazu bi irudi hauen artean
 dauden hamaika ezberdintasunak.



- 1 - _____
- 2 - _____
- 3 - _____
- 4 - _____
- 5 - _____
- 6 - _____
- 7 - _____
- 8 - _____
- 9 - _____
- 10 - _____
- 11 - _____

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

751

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Arkupe gozotegiak - Lote bat

Koro Migeltorena Ariztegi | ALMANDOZ

Okille tailerra - Eguzkilore bat

Lander Sein Sein | IGANTZI

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Miguel Angel Inarrea Etxenike | IRURITA

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Meliton Irazoki Bazterrika | SUNBILLA

Onddo ta Punto - Kamiseta bat

Joseba Gaztelumendi Bikondoa | LEKAROZ

Martiko - Lote bat

Elena Garcia Cortes | IRUÑA

Ibaizabal - Liburu bat

Arantxa Arraras Barriola | LEITZA

Ibaizabal - Liburu bat

Anastasi Bidart Organbide | URDAZUBI

Ibaizabal - Liburu bat

Antonio Erregerena Bera | LEGASA

2 sarrera



BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIO LEZEA

www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Haurrendako kamiseta bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

LIBURUAK

KAMISOI ZURI ZETAZKOA

Alaine Agirre
Irudiak: Sara Marcano



SASOLAKO ERROTARIA

Roxana Oteiza
Irudiak: Roxana Oteiza



• KamisoI zuri zetazkoa

• Sasiolako Errotaria




www.erein.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.lanku.eus



www.irrisarriland.eu